

zeruko ARGIA



IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 426668 - PREZIOA 7 PEZETA

“GERO” euskal liburuak

Bide zabal eta irekitik

Iritzi eta idazkera desberdineko euskaldunak gogoan edukiz

Lehen «ETOR» zena, orain «GERO» bihurturik dugu. Bera da azken bi urteotan euskal esku-liburuak goimailaraino igo dituen argitaldaria. Inoiz ez zuen euskal irakurleak ezagutu horrelako zuhurtasunez eginiko liburu sailik. Hilero hilero, esanari utsiz, liburu bat eskeini digu.

Hartu dugu harpidedunok PIO BAROJA deituriko liburuan agintzen zitzaigun Gurutz Ansolaren USA-REN AGINTARITZA ETA DOLARRAREN AHULEZIA. Garaian garaiari dagokion obra, hauxe. Benetako gertakizuna. Heldu ote da euskaldunontzat kultura bideetan garaiz ibiltzeko ordua? Horrelako ametsetan jarri gaitu liburuaren gaurkotasunak.

GEROK duen garrantzia ikusiaz, taldeari hurbildu gatzazkio galdezka.

—GERO, talde bat zeratela jakin dugu, harpidedunok jaso dugun eskutitzaren bidez. Hala al da?

—Bai, talde bat gara. Talde zabal bat. Sortu ere, talde baten inguruan sortu zen orain bi urte eta erdi, ETOR izenez. Talde sortzaile hartako batzuek atzerrira joan beharra izan dute estudiantzera eta hemen gelditutakoek —Aranalde, Artamendi, Larrañaga, Lizundia— beste lagun batzuk ekarri dituzte taldea osatuagoa gerta dedin: M. K. Garmendia, Xabier Lete, Anjel Lertxundi, Mikel Ugalde, Gorka Knörr.

—Horiek zerate, beraz.

—Horiek eta gehiago; esan beharra baita idazle asko eta jende asko dagoela GEROn inguruan. Egia da gero eta harrera hobea egin izan zaiola gure argitaldariari. Idazleen artean hor daude Mitxelena, Larresoro, Juan Mari Lekuona, Mikel Laso, Martin Ugalde, Patxi Altuna eta liburu-zerrendan ikus daitekeen beste asko. Indarturik eta haunditurik aurkitzen da argitaldaria gaurregun.

—Zer asmo eta helbururekin sortu zen eta jarraitzen du GEROK?

—Euskaldungoa du, noski, xede eta helburu. Gaurko gure Herriari erantzun nahi zaio. Gaur dituen arazoak zuzentzeko argia eskaini nahi zaio. Guk ez diogu zuzenki jakitun jendeari erantzun nahi, herri xehe kezkatuari baizik. Horregatik, ez dugu itxiak izan nahi. Zabal jokatu nahi genuke.

Beraz, iritzi eta idazkera desberdinetako idazleak onartzen ditugu. Itsumenez eta itxikeriaz zapuztutako herri hontan ukendu goxo piska bat ezarri nahi genuke. Mamia eta gaia ona izan dadila eskatzen dugu batipat. Guk, idazkerari baino garrantzi gehiago ematen diogu esaten denari.

—Beraz zuei «euskera batuak» gutxi axola?

—Ez horixe. Guretzat oso premiazkoa da euskera batuztea. Gure helburuen barru-barruan dago egiteko hori. Eta, jakina, hortan Euskaltzaindia da guretzat maixu eta gidari. Batu behar honek sortzen duen gogortasunarentzat bigungarri gertatuko den argitaldaria zabal eta irekia sortzea pentsatu genuen. Eta hortan gaude eta jarraitzen dugu.

—Zer egitarau edo liburu-zerrenda daukazu aurtengorako?

—Igazko zerrendaren azken liburuan datorrena bera dakar aurtengo aurrenekoak ere. PIO BAROJA liburuak dakarrena bera dakar USA-REN AGINTARITZA ETA DOLARRAREN AHULEZIA liburuak ere. Ez dugu bat bera ere aldatu. Urrengo, Martin

NON ZER

- ANTIGUA AMETS
Larresoro 3 garrenean
- BERRIRO ERE ESKUIA IRABAZLE
Elustondo 5 garrenean
- EGUN-IZENAK EUSKERAZ
Kapanaga 6 garrenean
- KARIBARI, EUSKAL ANTZERKI
TALDE BERRIA
Zubizarreta 7 garrenean
- ARRANTZA ETA ARRANTZALEAK
Atxukale 10 garrenean
- ELIZA, SALBAZIO BIDE
Arregi 11 garrenean

Ugalderen ITSASOA UR-BAZTER LUZEA DA jasoko duzue harpidedunok. Ondoren, Juan Mari Lekuonaren MUGA BEROAK. Handik aurrera, berriz, zerrendako liburu bakoitza bere garaian.

—Zuek baduzue KIMU izeneko beste sorta ere, gaztetxoentzat. Aurrera al doa?

—Bai noski. Jende mordo dabil hor ere lanean. Denbora eta dirua behar da denera iristeko. Baina aurrera goaz lan hortan. Hauek dira eskuartean daukagun liburuak: Lurdes Iriondoren MARTIN ARO-TZA ETA JAUN DEABRUA eta SENDAGILE MAL-TZUREA, antzerki bi; Inaki Azkunek moldatuko AMAIA; Jexux Mari Arrietak eginiko ANTISO GARTZEIZ eta beste.

—Ugaltzen ari al dira harpidedunak?

—Bai. Etengabe datoz berriak. Zaharrek, berriz, oso leial jarraitzen dute. Noizbehinka norbaitek atzera egiten du edo betarik ez duelako edo diru gutxi-rekin dabilelako; baina gehienek zintzo irauten dute.

—Baina GERO ez al da «Mensajero»-ren eta jesuiten mende dagoen liburu-sorta?

—Mensajerok ez du oraindik GEROn askatasunik arriskuan jarri. Lehen ere guk eramandako liburuak bakarrik atera izan ditu. Bi behituak izan arren ez du bat bera ere atzera bota. Legearen batesa eta diruaren laguntza besterik ez dizkigu eman Mensajerok. Zer liburu eta nolako liburuak argitaratu, gure esku utzi izan du. Horregatik jarraitzen dugu beronekin orain arteko jokabide on hortaz fidaturik.

—Norbaiten bidez egin beharko dituzue, bada, lanak?

—Beti bezala, Julen Lizundiak dihardu hortan bereziki. Pozik gaude orain arte egin duen lanaz. Berau dugu, beste lanik gabe, GEROn onetan bereziki ari dena.

—Zer egitekorik du taldeak?

—Idazleei lan egin arazi. Idazle berriak sor. Harpidedunak bila. Idazleen arteko harremanak ugaltzen diren lanak ikus eta azter; balio dutenak bakarrik argitarazi. Idazlanak eskura. Aldez aurretik hurrengo urterako agitaraua egin eta abar.

—Etorkez on ikusten al diozue GEROr?

—Zalantzarik gabe. Jende mordo haundia dabil honen inguruan. Harpidedun saila ere haundia da. Gehituz joango dela uste dugu gainera.

—Zertaraino iritxi behar luke zuen ustez GEROK?

—Kultura bideetan, euskaldungo zuhur batean lana egin nahi genuke.

—Ezer pentsaturik datorren urterako?

—Bai. Liburu zerrenda ia osaturik dugu. Orain ikusi eta aztertu egin behar dira, egokienak aukera ditzagun.

—OO—

Aurrera bada. Behar beharrezkoak ditu gure Herriak horrelako talde serio eta langileak. Zorionak eta jarrai hortan.

ERRIALDE



Nere Bordatxotik

Alperrik miatuko dituzu iztegi edo "dikzionario" danak.

Igandean begien aurrean ikusi genduen adierazteko eztago itzik.

Azken ogeitamar urte auctan amaika gizon trebe ta neurketa eder ikusi degu. Alare, igandekoa zer zan adierazteko ez gera kapaz.

Ura ezta itzez eta letraz adierazi ditekera.

Norberak ikusi bear derrigor, zer zan jakiteko.

Galde zaizu Azkoiti'n izan zan edozeini aruntz joandako damurik daukan. Entzun zazu ondo ematen dizun erantzuna.

—oOo—

Neurriz kanpoko bi gizon ikusi genituen lanean.

Batek bear zuen galtzaille, ta "Aretxa" izan zan, baiña ez bereak eta bi egin etzituelako.

Irabaztunari aiñaxe txalo jo zion jendeak, eta ondo mereziak zituen. Arrijasotzaille aparta, ta gizon osoa, ankeko azkazaletatik buruko illetaraino.

Galdua zegola jakin, eta egin egin bear zan ark egin zuena!

Iru tandak bukatu, ta iruretan jasoaldi berdiñak eman.

Zazpi jasoaldi, lenengo tandan.

Zazpi jasoaldi, bigarren tandan.

Zazpi jasoaldi, irugarren tandan.

Guzira: ogeitabat jasoaldi.

—oOo—

Zeiñek pentsa bear zuen alakorik?

Zeiñek pentsa bear zuen, batez ere, ogeitabat minutuan ogeitabat jasoaldi eman, amabi arruako arri zilindroari, ta alare galtzaille bear zuenik?

Bai, "Aretxa"; jokoia galdu egin zenduen, baiña zure izena egundo baiña gorago gelditu da. "Endañeta" alde batera utzirik, nor da zuek egin zenduen lana egiteko gai?

Or gelditzen da ori urrezko letraz apuntaturik.

—oOo—

Gizaldi zear istorirako geldituko dan gizona ba-degu: "Endañeta".

Orren entzutea izango da emendik berreun eta irureun urtera ere.

Lantegiari uzten dionean, deporteari agur egiten dionean (urte gutxiokoa baita gizonaren sasoi betea), "Endañeta" oroi-gailu edo "monumentu" bat zutitu bearko dio Euskalerrak, bere denboran egindako lan arrigarriak bertan agertuko dalararik.

Altzo'ko Aundia, esate baterako, bizi da jendearen oroimean.

Indartsu paregabe au ere bizi dedilla era berean.

Arrotza balitz, urrutikoa balitz, ruso edo amerikanoa balitz, adibidez, ez genduke asma-tuko nolatan goraldü.

Bertakoa da, etxekoa degü, ta askotxok eztute aintzat artuko.

Erdel esaerak diona: "Nadie es profeta en su pueblo".

—oOo—

Ogeitabost jasoaldi eman zion alajaiña, ogeitabat minutuan, amabi arruako arri kubi-koari!

Metro bat zabal ba-ziran gure azoak arrimenaren arrimenez. Orrelakorik ikusi bear genduenik!...

Azken tandan, irugarrenean, jasoaldi bat txartzat eman zitzaion.

Jaso zuen arria, baiña bizkarran errenditu ez. Igesi egin zion alhora, arritzekoa eztañez.

Lanik txarrena, esku bakararekin, alako arri puska bizkarran berdintzea ta errenditzea baita.

—oOo—

Ez giñan ansartzen (atrebitzen) jasoaldiei buruz iritzi bat ematera. Aurreko argi-izpirik ezpaigendukan: santa sekula ez-

paíta iñor jokatu arri oiekin eta igandeko kondiziotan.

Anka-sartze bat egiteko bel-dur giñan.

Itxaropen pixka bat ba-genduen geure aidetik. Au esaten genduen periodikuko lanetan:

Alegia, lau-edo bost jasoaldi besterik ez ematekotan etziztuztela iru tanda izendatuko. Naikoa zutela bakarrarekin.

"Enbido" au bota genduen egun batean, beldurrez bederik:

"Nork daki minutuko jasoaldi bat emateko kapaz badira ere?"

—oOo—

Iñorekin ezer itzezin gabe botatako "enbidoa" zan, "an ziaik eta ba-ziaik".

Gero, zer gertatuko-ta, galtzailleak lan orixe egin juxtu-juxtu: ogeitabat jasoaldi eman, ogeitabat minutuan.

Jainkoari eskerrak eman genizkion ura idazteko uenan eman zigun argitasunagatik.

"Endañeta" paregabea, jakina, ogeitabost jasoalditaraino iritxi zan, bat txartzat emana-gatik ere.

—oOo—

"Endañeta'ren" arriak bear baiña 100 gramo geiago pixatu zituen.

150 kilo ta 100 gramo.

"Aretxa'ren" arriak: 149 kilo ta 800 gramo. Bear baiña 200 gramo.

Pixuz goitik edo beetik, libra baten alde libre zuten: ala zegon jarria kontratu pape-rean. Pixu batetik bestera ere izaten da orrenbeste diperentzi sarritan.

"León-Castillo" bota ta galdu egin zuen "Endañeta" k".

Lenengo jokatzea tokatu zitzaion. Bere iru tandak galga ontan izan ziran:

Bederatzi jasoaldi, lenengoan.

Zortzi jasoaldi, bigarrenen.

Zortzi jasoaldi, irugarrenean.

Guztira: ogeitabost jasoaldi.

—oOo—

Irugarren tandan jaso ta jaso ari zala, batean arriak beera igesi zion "Endañeta" ri".

Denboraz geratu zuen. Ez geratu bakarrik, egin zuen indar-ketarekin bizkarrean berdindu baizik.

Aiek txaloak! Erori bear zuela zirudien Azkoiti'ko frontoiak!

Orduantxe geratu giñan zoro baten antzera, nun geunden ez gendekigula.

"Gizon onen indarrak ezteite mugarik", zion jende guztiak.

Ez genduen sinistuko esku bakararekin alakorik egin zitekenik.

Baiña alper-alperrik ari gera. Ikusi gabe eztago esplikatzetik, asieratik esan degunez.

—oOo—

Jende asko; sarrera bikaiña gogotik.

Aldamio aundi bat zutitu zuten, eta danak ikusi zuten ederki ango leiaketa, xeetasun txiki-kienik galdu gabe. Oso ondo ta pulamentuz egin ziran gauzak Azkoiti'n. Erakunde (organizazio) txalogarria.

"Endañeta'ren" pixua: 102 kilo.

"Aretxa'ren" pixua: 103 kilo.

Federazioko gizonak: Artola, Egibar, Santa Krüz eta Zabala.

Dirua, jokoia asi aurretik, eun amabosti Endañeta'ren alde.

Egun gogoangarria 1973'garren urteko martxoaren amaikagarren eguna.

Euskalerrian arririk eta arrijasotzailerik dan arte aztuko eztaña.

Baxarri

ZERUKO ARGIA SALTZEN DA:

ELGOIBAR
M. Gorostiza

BIBAR
Angera
Markina
Iriondo
Eguren
Gisasola
Barela
Alday
Aranburu
Estanko, 11
Isasi
Simon
Amene
Uraul
Urizer
Sigle XX




ECHABE

ETXABEAREN
Mueble - Etxea

Fuero'en Enparantza
Urrutzkifak: 84 10 78
84 11 24

ZARAUTZ



bazkari onaren zapagarria
eta txarraren estalgarria

LA CASA
DEL CAFE

Juan Iriondo

San Marzial, 19 - Urrut. 413801
Donostia

Ur-neurlariak: TAVIRA
DELAUNET

CONEX-SANBRA: Ur-bide era berria

Txaramillak

iberconta

IBERICA DE CONTADORES Y APARATOS DE PRECISION, S. A.

Bilbon: Hena, 23

Donostian: Aldamar, 14

Iruñen: P. Calatayud, 18

Madrillen: Gral. Sanjurjo, 18

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIAN

URTIETAN LAN OIETAN OITUA

BARRUAN DANAK EUSKALDUNAK


Hernani, 4

DONOSTIA



Donosti'ko
Erri-Etxe'ko Aurrerki Kutxa

EUSKAL IRRATIK SAIOAK



Banen baneko azikay
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak
Erosi edo berritzeko diru
aurreratzea
Baserri, lur-tresnak ta abar
Torelavega'ko Perira Joan
etorriak

Baserriaren alde

MITXELENA

ORDULARI ETA BITXITEGIA

Dei honi jarraituz bazatoz
zure erlojua KANARIAS bertan
baiña merkeago erosiko duzu

Matxin Arzu, 1

ONDARRABI

ERLOJU ETA BITXITEGIA

Eduardo Chopetia

Getaria, 10-Urrut. 417751-Etxekoa: 422700 - DONOSTIA

Ikastolaren inguruan

Ikastolaren inguruan ikusten den zenbait arazoz mintzatu nahi genduke. Ez, noski, legearen aldetik edo geuron arteko eztabaiden aldetik edo diruaren aldetik dauden arazoak.

Gauza askotaz jabetzen da ikastolaren inguruan dabilana. Premia asko nabaitzen du. Hoietakoa iru aipatu nahi genituzke gaurkean.

Ikastolak bere egitekoa obeto bete dezan, besteak beste, mintegi bat behar luke. Hau da, iru urtez beheko aurrak ere bere esku beharko lituzke. Guarderia edo aur-zaindegi bat beharko luke. Honelako zerbait egiten ari dira Tolosan, jakin dugunez. Donostian ere bada asmorik.

Behar beharrezkoak ditu ikastolak erri aunditan euskal giroko aur-zaindegi edo mintegi hauek. Emen artuko lukete etxean eta kalean erdal giroan bizi diren aurrak euskal-tertoa. Bestela, ikastolako euskal giro guztia birrintzen dute txertaka hauek.

Izan ere etxe askotan ez dira euskeraz mintzatzeko gauza. Debekatua izan bait zitzaizen gaurko guraso askori euskal-etziera. Etxean euskal giroa duten aurrak ere erdaldunen umez inguratutik daude. Honelako mintegi batean euskeraz ikasiko lukete izketan aurrek.

Bestalde gaurko gizartean honelako zerbait beharrezkoa gertatzen da lanera doazen amentzat. Besterik ezean, erderazkoetara eramango lituzkete euskal gurasoek ere, beren aurrak.

Garrantzi aundikoa litzake ikastolarentzat aurrak jaso ordurako euskal giroan aztea.

Baina aurretik egin ez den lana gero egin behar izaten da. Euskeraz doi-doi besterik moldatzen ez den aur asko daukagu ikastolatan. Hau, batez ere, sei urtetik gorako aurretzat da oso kaltegarri. Oso kezkatutik sumatzen ditugu hontaz zenbait mai-xu eta andereño. Ezin diote ikastolan euskal giroari eutsi. Ezin dute irakaskintzan behar bezala aurreratu.

Horregatik da ain beharrezko larunbat-igandetarako eta uda aldirako aur hoiertzat zerbait moldatzea. Bestela, erderaren erasopean itoko dira. Hontan ere badabilta zenbait, ikastolako aurretzat, erri txikietan, zerbait bilatu eta moldatu nahirik. Beharrezko dituen izadia eta euskal giroa aurkituko lituzke kaleko aurrak. Hortaz gainera oso premiazkoa luke zenbait aurrek uda aldi bat baserriren batean igarotzea.

Bestela euskeraz oso moteldurik, atzundurik eta nagiturik datoz ikastolako aurrak ikastaro bakoitzaren asieran.

Eta azkenik, ikastolako aur "atzeratuen" arazoa aipatu nahi genduke. Badira Gipuzkoan aur "atzeratuentzat" ikastetxeak. Donostian, Azeitian, Legazpian. Bada euskal kezka ere, baina ez agian ikastolako aurrei dagokien araberakoa.

Gainera ez dira ain "zeharo atzeratuak", onenean, ikastolako zenbait aur. Ez dituzte Patronato San Miguel bezalakoetan aritzen. Hoierei ere erantzun beharko litzaizkete, bailaraka bederen.

Dena den, ikastola inguruan bildu ditugun kezkek ditugu. Erantzun egoki baten zai dauden arazoak ditugu.

ANTIGUA AMETS

Egunargia argiago bide da gaur eguerdian. Bazterrak baretu dira. Eta euri-jasen ondoren, oraindik lurra blai eginda dagoelarik, hortentzi-adarretan erreparatu ditut ninka hezeak sortzen ari; eta, han-hemenka, mendi-mazeletan eta bide-ertzetan, kilinkondoan lore horiak. Zantzuok ez dute sekula hutsegiten: Udaberria heldu! Hurbil dugu udaberri miresgarria:

Bedatsian dirade zühaiñak loratzen...

Aurten, ordea, kanpotik-edo datorkit bedats-aire fina, itsas-haizea kanpotik etorri ohi zaigun bezalatsu. Udaberria odolean nabariturik ere, etsipen eta kezka gehiegitan nahasirik sumatu uste dut. Landareen altsuma xamur guriok bestela begiratzen ninduten aspaldian; hori uste dut gaur bederen. Esperantza zen lehen udaberria, barne-tiraina; urteotan barrena, berriz, hitu egin da nigan, loratu gabe zimeldu, barne-tiraina kanpoko haize bala epel bilakatu; eta gaur kanpotikako apaingarri aparta gisa datorkit.

Egiako udaberriak antzinako urteetan bilatu uste dut orrela. Udaberria lehen izan baitzen, lehenago, askoz ere lehenago, gaztaroa baino ere lehenago, oso urrungo urte urrun haieran... Picassok xuxen esana duen bezala, urteetan barrena oso nekez irauten baitu guran haurtzaroen izan ginen poeta harrigarri hark. Liluraren sakona haurtzaroen! Gero, ondikotz, ezari-ezarian kamustua eta iraungia.

Gero eta maizago gertatzen da bizian atzera-behar hori; eta zeren seinale den badakit. Zerorrek ere bai irakurle horrek.

Ninika berriok, horretara, Txokolatene hartara eramán naute gaur; eta masusten garratza senditu dut

ahoa; eta orban moreak esku ahurretan erreparatu. «Haiek bai udaberriak!», esango nuke bihotzez; gure aurrekoek esan izan duten bezala, eta gure ondokoek ere, gaur zernahi pentsatuagatik ere, esango duten bezala...

Txokolatene-ko aska hura gogoratzan zait, horrela, ezin-beste bezala; eta hain gogoz urrupatzen genuen gaineko iturria. Eta Altunaren etxea bururatzen zait, bihurtuganean; eta aurrez-aurre Marbil-Berriko zahatza; eta aldapa itzaltsuan gora arratsetan, isil-isilik eta elkarri gerritik heldurik, haren ondolik izkututzen ziren maitale-bikoteak (geure hartzaro-begiez ikusirik, sekula ere iritsiko ez ziren adin eta mentura harrigarriak).

Konporta-Berriko bidea datorkit burura (nahiz konportaren azken burdinak dexente erdoiturik izan!); eta Lizarriturri-ko usain sarkorra senditzen bide dut berriro; oraindik ere, gudu-garaian bezala, koipe eta koko urrinez oratua; eta Konporta erreka-ko kiratsaz eta arratoi-nez berriro nardatzen bide naiz...

Miramar-Jauregi ondoko murrua sumatzen dut neure barruan, itxuraz aldapan behereko ezkeraldetik azkenik gabea. Eta frontoia. Eta Txillardegiko hitza irakurtzen bide dut berriz Matia-kaleko harresi-atari hartan...

Ezen Antiguano ezagutu baitut nik udaberria, kiratsez eta kresalez batera osatua, langile-soineko urdinez eta baserri-kutsuz ere mamitua; eta geroztik udaberriak ezagutu ez dudala iruditzen baitzait.

Antiguara narama horregatik oroi-menak; eta lehenengo ahuntzostoen urrin ederrak betirako santsitua omen den euskal Antigua herri-ka hartara narama bereziki.

Danieltxo ikazkin gizarajoa ikusten ari bide naiz, beti zarpail jantzita, eta askotan gure iralnen bitima. Eta Igarako bideko indiano harrigarri hura ikusten dut berriro, bizikletatik hamaika aldiz bezalaxe, beti ere bide ondoan aukil batetan eserita, norarik gabe beti so... Eta Errota-Berri hartako segardotegi iluna birrikusten ari naiz hortentzi-ninikez bestaldera, baserriarrez askotan beteaz; eta etxe ondoko uxola; eta Errota-Berriko Kandido mutiko jator hura, gurekin erdaraz fitsik ere ezin mintzatu!

Antiguako euskalduntasun harrigarri hura ez dut geroztik ia inon kausitu. Lurdes-Txiki ondoko gertatu zait niri egundokoak euskara hutsaz entzutea (beharbada Rekondoren izubaren batek botailak!); eta Arratzainen oinean, Igaroko bide-muturrean beraz, Lesakako adiskide batek makilaldi gogor batetatik salbatu izana, errabian zegoen baserriar hark ez baitzekien txintik erdaraz... Mila oroitapenetan, eta parrokiaren ondoko eskolan bertan, ziplo isurtzen zen euskara hutsa Antiguako hauzoan! Hazparne, Urketa eta Donapaleu berak Erdal-Herri huts zaizkit, udaberria ezagutu nuen garaiko Antigua jator haren ondoan. Hantxe hozitu zen ene euskaltzaletasuna. Aldakuntza geroko hogeita-hamar urtek ekarri dute.

Eta oroitapenen hildotik abiatuz gero, Igeldoko funikularren alde-rama narama ni baino sakonago dirudien zerbait. Tranbia-zuriak sumatzen bide ditut oraindik, palmendo luze bakar haren ondolik kirrinka eta jiraka ari; eta etxe luze haren barruan txanpon batez pelikula labor bat eskalintzen zuen tresna hura dakusat, aspertu ere arte lagun guztioz begiratua eta bir-begiratua. Gauza bera nesake musika-zilindroa zerabilkien tramankulu hartaz, egunero entzuna.

Udaberriaren etorrerak, ordea, harago ere narama, gorago, Igeldo ez balna Txubillo deritzan tontorre-ara. Huraxe izan baita, uste dut, udaberriari dagokion gertalekua. Zubitxoan azpitik isuriz, hementxe dut, aurre-aurrean, «Rio Misterio-

so» hartako krokodilo argitsua; eta kioletako tximu zalapartariak, «Bartolo» itsusia buru; eta 1936ko guduan mendian harrapatutako «Ursula» hartzemea, urtetan barrena preso zahartua eta hila omen; eta karrusel bildurgarria, anitz garrasiren eragile; eta astotxo haiek, haurren eramale otzan... Eta aidean etengabe nahasirik, funikular-makineriaren zurrumuru, beti ari eta ari... Guztiz oroitapen ximpleak horiek oro, zeharo enetzako ahaztu-ezina, arras ere ene bizi-udaberriari atxikiak...

Gauza bat nuen, eta dut, Igeldon maiteenik: udaberriaren bakarti zuden atzekaldeko pinadia eta pinuen arteko bidetxorak, behin eta berri bisitatuak. Hantxe entzun ditut nik isiltasun oso hartan Lizardi-ren «bizion oiñok»; eta hantxe ere, ha-jako batez, Debussy-ren «La Mer» bikaina... Bakardade momento haie-txek izan dira agian neure bizian ezagutuko ditudan osoenak.

Aspaldiko kontuak! Badakit.

Ene hankek, ordea, ez dute hama-bi urte honetan Txubillo maitatua zapaldu. Urte gehiegi: nik baino hobeki inork ez daki. Eta aurtengo lehenengo ninikek, altsumek eta muskilek, aurtengo udaberriko lehen aitzindariak, atzera naramate, Leku-Eder-ara, Txubillora, Igeldora; neure udaberri urruneraino naramate hain zuzen; Naturalezaren udaberriak ene biziera-udaberri-ari dei egingo bailiokean...

Txubillo bakartiko udaberri hura ena baitzen. Oraingoa, berriz, zuhaitzena zait, xorienean, itsasoarena... Besteena ere bai. Udaberria gazarroari baitaxteko osoki; irribarre-oparoa izkutuko neska maiteminduari datxeko bezala.

Gaur, horrela, hortentzi-ninika horiek ikusi ondoren, Txubilloko itsas-alde isilera narama neure barruak, bideska itzaltsu haierara, pinu-usain darien eskualde adoratu haierara; eta, etxera beharrik eraginik, badantzut berriro, funikular-orroa urrunean gailen, egun hartan liluraturik entzun nuen Debussy-ren poema huraxe. Gaur badakit orduan nigan piztu zen esperantza-uhin harroa udaberri-uhin bortitza zenez, ez dela nigan inoiz mamituko. Baina besterentzako izanik ere, inoiz obratuko ez diren ametsen iturri izanik ere, ederra da udaberria; gizonak ezagutu eta dasta dezakean olerkirik ederrena baita.

Horregatik gaur, inoiz Txubilloko itsasaldera bihurtzeko «esperanta desesperatu» honek, orduan hainbatez, orduan baino ere hareago agian, bizi-erazten nau; eta lilura zorotan kulunkatzen.

LARRESORO

GALLEGO HIZKUNTZA

Eskola umeen hizkuntza arazoak jende asko eta asko kezkatzen du mundu honetan. Begira nola mintzo dan «Cuadernos para el Diálogo» aldizkariaren irakurle bat. Bere hitzak jaso ditugu guretzat ere garrantzizkoak direla pentsatuz.

—OO—

Pozik irakurri dut EDEK langile arazoei eta Galiziako hazkundera buruz argitaratu duen lana. Baina ez diteke egiazko aurrerapenik egin, ez sozial eta ez ekonomia aldetik, kultura alorrean ere egiten ez bada. Horregatik pozik ikusiko genduke azken mendeotan gure hizkuntzak eta kulturak jasan duten atzerapenaren berri emango lukeen beste lan bat ere. Gezurra badirudi ere gaurko mintzabideek asko laguntzen diote gainbeherakada eta galtze honi.

Gure hizkuntzak, Galiziako hizkuntzak, ez duela balio adierazi zaigu, garbi eta aurrez-aurre ez bada ere, izkutuka eta zeharka antzean: gure hizkuntza langileen hizkuntza dela esan zaigu (langile mailakoa izatea pekatu balitz bezala); ez dela aurrerapenarentzat eta kulturarentzat tresna egokia; ez dela hizkuntza, hizkelgi xixtrin bat baizik; hiru milloik bakarrik hitzegtzen dugula, askoz ere gehiago mintzatzen direla gure artean ere gaztelaniaz, eta honelako beste gauza asko esan zaigu. 50garren urtea zen noski, oso oker ez banago, gure hizkuntza kakeztuarazi nahiz liburuxkak idatzi ziren urtea. Zorionez ez naiz oroitzen berrietan esaten zenaz.

Espania ere barruan daukan U.N.E.S.C.O.k «El empleo de las lenguas vernáculas en la enseñanza» izeneko liburu argitaratu zuen 1953garrenean. Honela dio:

«Uka ezinezko da, jatorrizko hizkuntza dela umea eskolatzeko biderik onena». Eta hauxe erantsiz argitzen du: «Nola-hala dakian arrotz-hizkuntzan baino askoz ere hobeto eta azkarrago jasotzen du pedagogia aldetik jatorrizko hizkuntza».

U.N.E.S.C.O.ren beste batzar batean ondorio hauetara iritxi zen: a) «Etxeko hizkuntza da, umearentzat, gauzak esateko bide jatorra. Gauzak adierazteko bidea erabat lantzea da bakoitzaren premietako bat».

b) «Etxeko edo jatorrizko hizkuntzan hasi behar da edozein ume eskolatzan». (Ez da entzuten Galiziako eskoletan gure hizkuntzarik non eta, non edo non, hontaz grianaturikako maixurik ez dagoen).

d) «Zein batek zein bestek, hizkuntzek ez dute bere baitan traba-rik gaurko kulturaren bide izateko». (Ez dago, beraz, bat bestea baino hobea dela esateko arrazoirik).

Gallegoa eta portugesa hizkuntza bat eta bera dela esan beharra dago gainera. Bakarra zen XIIIgarren menderaino. Geroztik ez dira bi hizkuntza, hizkelgi bi baizik. Hiru milloik baino gehiagok, elkarri esaten dioguna, jaso dezakegu, beraz.

Eskoletan ez da irakasten ez gallegoa eta ez gallegoz. Hori gutxi balitz bezala ez dugu ez egunerokorik eta ez orri xixtrin bat bera ere gallegoz.

(Inglesez bat eta alemanez beste argitaratzen dira, oker ez banago, Mallorkan). Ja erabat gallegoz mintzatzen den irati bat bera ere ez dugu. Telebistan, berriz, ezta orduerditxo bat astero bede-

nik ere. Mintzabide hauek denek, gaztelaniaz direnez gero, galbidean jartzen dute gallegoa. Horregatik aitortu dut aurreraxeago, kinka larrian ezarria dagoela gure hizkuntza.

Ez dakit zergatik sortua den zapalkuntza edo bereizkuntza hau. Umeak bi hizkuntzak, bai gallegoa eta bai gaztelania, ezin ikasi ahal izango dituelako edo. Baina hori ez da honela gertatzen, ordea. Umeak irakasten zaion guztia ikasten du. Gallegoa, gaztelania eta inglesa ikas ditzake batera irakasten bazaizkio. Hizkuntzaren eta kulturaren batasuna edo berdintasuna beharrezkoak direla uste dezake norbaitek aberriaren batasunerako. Hori norbaitek uste lezakeela pentsatze hutsak ere hotzikara ematen dit, batasun arlostea bait litzake benetan gurea. Ez, ez doa batasunaren aurka kulturaren eta hizkuntzaren desberdintasuna. Hor dago, adibidez, Suiza.

Gizonaren eskubide guztiak onartu behar dira: Juan XXIII-nak idatzia da honako hau: «Herri txikien aurrerapenari, beraien kulturari, hizkuntzari eta abarri lagunduz, agintariek begiratzea zuzenaren eskakizuna da».

«Oficina Internacional de Educación»-ek idatzia da beste hau: «Shock sicológico» haundia somatzen du etxean entzun ez duen hizkuntza batean eskolan egiten zaion haurrak». Ez duela bere hizkuntzak ezertxo ere balio uste du eta besteak baino motzagoa den irudipena jartzen zaio. Besterik gabe beldurri, lotsati eta barrukoi bihurtzen da».

BEGIRUNEZ

Ricardo Xill e Carnicer

ZERUKO ARGIA

Zuzenadaria: MIREN JONE AZURZA

ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoi-ko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).
Donostia: Okendo, 22
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Atzerrietako beste errietan	370 pezeta
Aldez	Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta

Irarkola:


«Gráficas Navasal»
A. Adoain, 1 IRUINEA
D. L.: NA. 80-1963

ARALAR Hilaren 4ean, "marmioak" lasaitze aldera edo —zenbait baserriar giputzek esan ohi duenez—. Aralarren ginen "Amatiño" eta biok, bai eta ene familia guztia ere. Eguraldi ederrak eraman ginduen Nafarroako lurralde haietara. Ez da paraje eskasa, ez horixe! Bada, bai, eskasagorik. Izan ere, denera ere, zenbat Aralar hainako Euskal Herrian?

Aurrez aurre Andia mendi pila, San Donato harrokoa eta Ergoyena bailada, Lizarraga zehar Estellarako (Lizarraga) bidea. Maldapean Huarte Arakil, ezker aldean Irurtzun eta urruticeago, erdi lainoz estalirik, Iruñe zaharra, bertan bertanxe bailegon, eta atzekaldean, sortalderuntz, Pirineetako tontorrak zeru urdina urratu nahirik.

Eskuin aldean, ordea, Gipuzkoara bidea: Lakunza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaikoa, Iturmendi, Urdiain... eta Urbasako hegalean Olazagutiako tximiniak ke zuri zuria dariela. Azken finean, berri, tente asko, Aitzkorri.

● Ez da erraz sinestea, Altxueta babespean dugun San Migel ermitatik (1.235 m.) egun ikus dezakegun Altxasuatik Irurtzun arteko bailada ikaragarria ez dela betidanik horrela izan. Aitzitik, duela zenbait miloi urte, Andia eta Aralar bat baino ez zirela, eta gaur egun Barrankan zehar doan Arakil erreka kozkorrek horrelako bi mendiztar ikaragarri erdiz erdi banatu dituela zenbait miloi urteren buruan.



Aralar-ko S. Migel ermita

● Baina, Aralarrez jarraituz, benetan ixtorio-mixtorioz aberatsa gure lurralde hura. Artzain eta mendizaleen Aralarrez gainera, historiagile eta etnologiarientzat ere bada toki apartarik; hango triku-harri, harrespila, ohitura, sasi-kondaira eta ipuin zaharrak guztiz interesgarri azaltzen zaizkie azterlariari, bere eliza erromaniko eta guzti.

Aipatu ditugunez gainera, bada egun beste Aralar-zale meta bat, skilaria alegia, elurra ere franko bait da Aralarren zenbait hilaletan. Hilaren 4ean, behintzat, bazen jenderik. Hango jendetzak —umeak batipat— ez zuten akaborik. Euskaraz ere barra barra, haurrei esker, haurrek bortxatzen bait dituzte gurasoak.

● Eta denetarik egon behar zenez gero, han zegoen ere Euskaltzaindiko idazkaria ere, gure adiskide eta maisu den Juan San Martin hain zuzen, betidanik izan duen mendizaletasuna oraindik ere nabari duelarik, euskal letrik ez bait diote mendiaren eragina deuseztu.

Eta San Martin aipatu dugunez ezin dezakegu azaldu gabe utzi irabazi berri duen saria, edo, hobeto esan, Donostiako Aurrezki Kutxak muntatu duen Gipuzkoako Herri Monografia Sariketan, San Martinek burutu duen Elgetako Monografia saritua atera dela, alegia.

Monografia honek ez dagokio, bestalde, Elgeta herriari bakarrik, Ubera eta Angiozar hauzoei ere baizik. Izan ere, Angiozar hauzoei Elgetakoa izan da oraintsu arte, baina hara non 1928 urtean elgetarrei bururatu zitzaizen Eibararako bidea egitea, hiri honetako komertzio eta industria zela eta. Angiozarrek, ordea, ezetz, bideren bat egitekotan premiako zela Angiozar eta Elgeta artekoa. Elgetak ez zien hauzokoei jaramonik egin eta Eibarrera jo zuten. Angiozarrek, berriz, erabat haserretu, eta zer arraio... hanka egin zuten, Elgetako Udaletzarekin zuten harremanak hautsiz.

● Arratsalde erdian Azpiroz gainean ginen, bertan dagoen ostatuan. Horrela jakin ahal izan genduen —bertako tabernariak halako euskara bitxi batez esana— ostatuaz gainera dantza leku bat ere badela bertan, non larunbat arratsaldetan batzuek beste mila inguru gazte bildu ohi da. Askotxo iruditu zitzaigun, eta hala irudi dakiok irakurleari ere, baina antza, egia da, nonbait, aldamenen obratan arri bait dira bi mila laguntzat dantza leku bat egin asmoz. Auskalo, non eta Azpiroze! Neska-laguntzak ere badu, beraz, bere "eboluzioa". Azpirozko errebutak ez dira, ez, txantxetakoak. Ez horixe!

● Baina ez dira, itxura denez, gure gazte guztiak dantza tokitan "alferrrik gaitzen". Bestelakorik ere bada, Jainkoari esker. Hain zuzen, Azpirozko errebuta trakets hoi-tako batetan geldiarazi ginduzten. Xabierretik erromes zetozen laupabost neska-mutil ziren, paparretik halako zurezko gurutze handi bat zintzilizka zeramatela. San Migeleko ur bedeinkatua eman genion auto nekaturari, eta bai arrankatu ere, bizkor asko! Izan ere, radiadorean urik ez denean berdin izaten da —nik uste— San Migelekoa edo Zugarramurdikoa.

● Eta festa bukatzeko —giputzek esaten dutenez—, Tolosan ginen hegatzadaren letxe —hau berriz bizkaitarrek— ihante igandez. Tolosako ihantzeriak sekula ikusi gabe ginen, eta hara non, ustekabean, gure haurren jostagarri.

Egia esan, irakurle, ez dakit zer esan Tolosako ihantzeriaz. Arratsalde erdi es da, noski, nahiko hartaz jabetzeko, baina... behar bada, ez zitzaidan batere gustatu. Barkatu, agian besterik espero nuen —nik nenk ere ez dakidala zer espero nezakeen— edota espero ez nuena ikusi nuen. Tira, batek daki! Dena den, ihante deserrotu bat iritzi zitzaidan, hits batez esateko, ganberrada hutsa. Ez dakit... agian ximplegia nais, daitekeena... Garmendiaren liburuak ikus

ahal izan genuena baino zerbait gehiago erakutsiko ahal digu!

BI ZAKUR BIZKAITAR Bilbaoko egunkari batetan hizki handiz iratzen ahal dugunez, BI ZAKUR BIZKAITAR irabazle atera omen dira Madrilan eratu den zakur lehiaketa batetan. Badakigu, bai, nabari dela zenbait maila eta giro-tan halako jatorri batez jabetu nahi izatea, jakintsuez nahiz fobalari eta txirindulariez gertatu ohi dena alegia, hau da, "hemen" jaio eta beste hor nonbait hazi eta hezitakoa "hemengo" dugula, eta han jaioa eta "hemen" bizi izana ere hemengo, noski, herriak gizon ospetsuen egarri balira bezala.

Jakina, pertsonaz ulergarri dakiguke halako zentzu harro-putz bat, baina animaliez? Guri, behintzat, ez zaigu inoiz bururatu arrazadun zakur bat bizkaitarra edo giputza izan daitekeenik, eta, are gutiago honako honetan bezelaxe, harako zakurrak "setter ingelesak" direnean gainera.

Baina, tira, ez da gehiegi Bilbaon gerta ahal izateko. Oraindik orain, baten batek bi zakur bizkaitar txapeldun hoiak RH "positivo" ala "negativo" diren ere esanen digu.

ALEGIAKO BAT Itsasoak ez du esperantzarik deritza nobela bat eskaini berri digu Alegiako Luis Haranburu-Altuna idazle ospetsuak. Ospetsua —diot—, zeren azken bi urte honetan egin dituen "merituak" az bait ditzit inork ukatuko.

Nobela irakurterraza bere lehen hau, hasi eta buka arratsalde erdi batetan aspertzeke irakur ahal izatekoa. Ez da berau guti edozein nobelarentzat. Hala ere, mamiz nahiko pobrea, eta dagoeneko norbaitek esana duenez gogotaz aberatsegia. Ziri "berdeei" gertatzen zaiena gertatzen zaiola nobela honi ere, hau da, horrelako kolorerik ez balute erabat eskasak iratekeela. Baina, nonbait, literatura hori baino zerbait gehiago da, eta gezurra dirudi halakorik eskaintzeak behin baino gehiagotan literatura zer den eta zer ez den irakatsen ahalegindu zaigun batek.

Ahaztu gabe esan beharra dago —egileak honela uste bait du, antza— honako hau Euskaltzaindiak eraturako Sarira presentatu zen nobela bat dela. Bizar gorridunari la- ket zaizkio, nonbait, honelako aurkezpenak, oraintsuan argitara eman den Euskal Literatura 72 delako bilduman berorren antzerki lan bat ere aurkezpen berdinez azaltzen bait digu: "Obra hau 1971. go Agora sarira presentatu izan zen. Juradoak (Roque Arambarri, Antonio Arrue, José Antonio Loidi, Juan San Martin, Antonio Zabala) saria 'desierto' deklaratu zuten".

Bagenekien, bai, lehendanik ere, harako sariketan inoren lanik ez zela saritua atera, zenbait arrazoi "extraliterarioz" ate joka ibili arren. Bagenekien ere, guztien plikak erre egin zirela, zein obra norena zen ez jakin asmoz. Baina horra hor non agertzen zaigun gure gixontxo, haletariko bat bera zela guztioi jakinaraziz, eta epai-mahaia nork osatu zuten gogoraziz, bere obra baliosa ez saritzearen errudun balira bezelaxe. Ausardia behar da gero! Dena den, orain mahaikoek badakite nor den saritu ez zuten "esperpantu" haren egilea. Beti da zerbait.

Horrez gainera, Haranburu-Altuna langile finak beste hirugarren liburu bat argitara eman berri du. Gizartearen Eskola deritza, ez dugu oraindik irakurri, baina itxuraz behintzat ez du guti baino merezi, ez bait du egileak oraindik inongo sariketatan presentatu!

Dena den, Olimpia zentzu batez diogun guk ere: Garrantzikoena ez dateke irabazi, parte hartu baizik. Ez ote? Hara non oraingoan ere arrazoi du gure alegiarrak. Noiz ez? Bizarririk ez dugunok ken dezakun txapela desmitifikazioaren mitifikatzailearen aurrean.



KOPERATIBAK Berrito ere Koperatibak aipatu beharrea gende laugarren orrialdeko atal honetan. Oraingoan, aldiz, lehen lehen mailako iritzi soil batzuk eskainiz baino, lan sakonago batez berri eman nahirik. Izan ere, Arantzazuko "Jakin Sorta" delakoak oraintsuan argitara eman du Koperatibak deritzan ale berria.

Sorta hau, dakigunez, elkar-lanean eginiko lanez osatu ohi da, hots, zuzendaritzak hautatu gai zehatz bati buruz hainbat azterlariren iritziak bilduz. Dagoeneko, praktikak ondotoz erakutsi digu, era honetako planteamendua guztiz interesgarri dela, elkar-lanean eginiko azterketek badutela liburu lodikote soil batek ez dezakeen halako bizi-tasun bat, bai eta askoz ere irakurterrazago gerta dakiola irakurle soilari ere.

Baina, liburuari atxikiz, diogun hiru atalek osatzen duela koperatibei buruzko bilduma hau, Koperatiba Munduan, Koperatiba Euskal Herrian eta Koperatiba Nora, alegia.

Koperatiba Munduan deritzan atalean "Sueziako koperatiba mugimendua" (U. L.), "Jugoslaviako Autojestioa" (X. Zabala), "Israelgo Elkarteak" (Benat Laxague) eta "Quebec-eko Koperatibak" (C. Harlouchet) aipatzen dira, munduan barreneko zenbait koperatiba motaren ikuspegi bat eskaini asmoz.

Koperatiba Euskal Herrian delakoan, aldiz, izenburuak berak dioenez, gure arteko koperatiben berri eman nahi

izan da: "Koperatibak eta Nafarroako nekazalgora" (Iba- rrekoea), "Eibarko Maquinas de Coser Alfa, S. A." (Imanol Laspiur) eta "Mondragoeko Koperatiba entsegua" (Anjel Larrañaga).

Hirugarrenez, "Koperatibismoa zertarako"? (Koldo Go- rostiaga) eta "Euskal Koperatibismoa haro berri baten atondoan" (Gurutz Ansola) izeneko bi lanek osatzen dute ideologia, teknika eta ekonomia mailan koperatibagintzak izan ditzakeen helburuak eta erakar ahal dituen ondorioak.

Azkenik, eraskin gisa, Ramuntxo Kanblong-ek idatzitako "Arrasateko Koperatibismoa: Iparraldetik begira" deritzan idazlanaz amaiera ematen zaio ia berrehun orrialdetan ba- rrena JAKIN taldeak moldatu digun ihardun txit interes- garria.

Izan ere, bilduma hau ez da, noski, erabateko azterketa bat, ez sozial, ez eta teknika edo ekonomia mailan ere. Nabari da, bestalde, nekazarien koperatibak ez direla guti baino aipatzen (Nafarroako azterketak ez ditu sei orrialde baino). Bizkaian bada hoi-tako koperatiba bat baino gehi- go, eta oker ez bagaude bilduma honetan parte har deza- ten nahi izan du JAKINEk, baina inork erantzun ez, ordea.

Horrez gainera, Arrasatei buruzkoa, eraz eta moldez, motzegia, zenbait estadistika xehetasun eta organigrama soiletan geratu bait zaigu. Arrasateko mugimendua zerbait gehiago merezi duelaokan gaude.

Halaber, Gurutz Ansolaren lanak —irakurgarria izanik, eta, noski, egilearen trebetasuna eta maisutasuna ukatze- ke— pitin bat "demodé" dirudi, aspalditxo burutua balitz bezala.

Eta amaitzeko, lanik osotuenetako bat Imanol Laspiur- rrena dugu, agian, eta "koperatiba" ez den lantegi batez hain zuzen, Eibarko Alfa, S. A. delakoak, alegia. Jakina, duela berrogeita hamar urtetako koperatiba zentzua eta gaurkoa ez dira berdinak, baina, hala ere, sortzaileen iz- piritua eta sasoi hartako giroa jakingarri dirateke. Bestal- de, Laspiur ez da lantegi soil batez mintzo, herri oso ba- tez baizik, Eibarko zori-eko sozialismoaz eta beste. Izan ere, Eibarko langilearen mugimendua jakin nahi du- nak ezin ahal izanen du ustegabeko lan hau irakurtzeko utzi.

Azkenik, diogun, liburu honen aurkezpena Eibarren egin asmoz ari dela zenbait gazte. Aiparilen lehen astean edo izanen omen da, Joseba Intxausti, Gurutz Ansola, Ra- muntxo Kanblong, Jabier Erdozia eta Imanol Laspiur jau- nek osatuko duten mahai biribil batez. Programa guztia polita ondotoz merezi duen liburu batentzat.

DENETARIK Martxoaren 4ean, R.T.F. delakoak es- karazko irratsaio bati ekin zion. Ho- nako irratsaio hau goizeko 9.30etan izanen da, eta Hendaia- ko "Haize Garbia" deritzan elkartearen ardurapean eratu- ko.

Telebista saioak, berriz, aurrera doazkigu, harrera onez joan ere. Euskal Herriko folkloreaki dagozko batipat, eus- kara hizkuntza berari baino. Hala ere, zerbait gehiago nahian arreta handiz ari omen dira Ipar Euskal Herrian. Ea noiz T.V.E. ere Europa mailan ikusten dugun.



Tuteran eratu berri da Euskal Pintura Erakusketa. La- purdi, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako hogeita hiru pin- tatzaileraren obrak agertu dira, egungo euskal pintura gaz- tearen ikuspegi hedatu bat azaldu gurarik. Erakusketa hau beste zenbait euskal hiritan ere muntatua izan da jada- nik, eta Donostian C.A.T. delakoak eraturiko VI Euskal Pintura Sariketan parte hartu zuten pintatzaileek osatzen dute.

Dena den, aipagarri da Tuteran euskal pinturak izan duen harrera ona. Eta ez pintura bezala soilik, "euskal" zentzu horretan ere baizik, tuterarek beren buruan Euskal Herrian barruan ikusten dutelarik, hiruzpalau txistulari eta euskara ikasle dozena erdi bat ezik, hai eta herri osoa bera ere, pintura erakusketa batetan antolatzaile zein ikus- leen artean bildu ohi den denetarikoa jendea lekuko.

● Frantziako auteskundeak (bozkak) direla eta, jaso ahal izan dugu "Le Travail" deritzan sozialisten aldizkaria. Esan digutenez, aldizkari hau omen da aurtengo auteskun- deetan euskara gehiago erabili duena. Dena den, aurrean dugun alean behintzat ezer guti baino ez da euskaraz, izenbururen bat edo eta Etxahunen zortzi bertso.

Izan ere, Mauleko eskualdean sozialisten aldetik aurkez- tu direnak Jean Lougarot eta Arnaud Bordazare-Etxahun izan dira, azken hau Etxahun bertsoariaren seme delarik. Bozkak (auteskundeak) direla eta, hona hemen Etxahunek moldatu dituen bertsoetarik bi, azken biak hain zuzen. Zuberotarrez burutuak dira, noski, eta agian zail samar gerta dakiok irakurleari. Baina, soseguz soseguz irakurri, eta agian kontura ahal izanen gara sozialistak ez direla hain "gaiztoak", ez behintzat duela zenbait urte, Arraten eta ostiral sandu egunez, bildots-jana egin ohi zuten Ei- barko sozialistak bezain "gaiztoak":

Ene aurrhidiak entzimen düzie diskurtsetan zumbait xixta Hurak direla jinkotiarrak ta gü aldiz anarxizta Horien jinkua sosa bera da jaun haundi kapitalixta Guria aldiz Jesus pobria lehen lehen sozialixta. Eskualdüinak behar beütüzie, laster juan bozkatzera Kontzentzüskü haita zazie, ez ützi ilüsiterra. Palais-Bourbon-ko gollixta horik, anda itzatzie afuera Gure khostüz bildu ontarzunen beren artin phartüzera.

EGUN - IZENAK EUSKERAZ

Beste azterlan batzuren artean, hemen azaltzen dudana hau ere, aspaldi egiña nuen. Orain zergatik ateratzen dudana? Hor doakizu aitoren osoa. Lehenbizi, Laspiur adiskidearen usteak gezurtatzeko; nekizkianak golkoan lurperaino eroango nituala uste izan dualako, nahizta nik ezeko itza eman. Bigarren, Mixelena jaunak «Munibe»n, izenburut berdinakin agerrerazi duan lana arestian irakurria dudalako. Honek bultzarazi nau gai beraxe autatzera. Eta irugarren eta guztion gainetik, euskerari buruzko estudiatze sakon bat egiteko dugula oraino uste dudalako. Eta hori egitea beharrezko dugula, beti uste izan badut arean, areago uste dut orain, nolanihi eginbeharrezkoa dugun izkera-batasun baten izorraldian iñora ezean gabiltzalako. Arinkeriek, itsukeriek eta dollorkeriek oratu diguten giro madarikatu batean murgildurik bizi garelako. Ohar irakurle, «izorraldia» esaten dudanean itzaren benetako esanahiaz ari naizela; hau da, amaren errailetan izaki berri bat sortu eta egiten ari danekoaz.

Mixelenak, euskerazko egun-izenen azterte zorrotz bat egin digu, ohi duen bezela zuhurra eta dakian bezela tenikaz erabilia; nahizta iñoz baino ausartago iruditu zaidan. Neronek aspaldi aztertua nuen gaia zalarik, arretaz irakurri dut, baita hariduraz ere. Haridura, alde batetik, bizkaierazko izenen ardura nagusi ageri zaiolako eta bestetik, ene lanaren egi-ustea indartu didalako. Hala ere, izen bakotxa banaka eta bere-berean aztertzen du, eta (barka bezait esateko ausardia) ene ustez, bide hontan lehertzen dira gure izkuntzaren izkutukizunak urratzeko, orain arteko ahalegin guztiak. Bestalde, Mixelena jaunak ditugun izen gehienak darabilzki, guztiak bat izan ezik: bizkaierazko *egustan*. Izan ere, euskal iztegiaren ez dugu izango izen erdeñatuagorik. Edozein euskaltzale nahiz euskaldunek (bizkaitar asko barneko) lotsaz izkututzen du. Asteazken lirainaren aizpa sasikumea! Baiñan neroni, izentxo berori baliotsuenik gertatu zait. Aitor behar dut ere, Mixelenak eman didala larunbataren izen jatorriaren berria: *laurenbat*. Ez naiz gehiegi irakurritakoa eta ez nuen gauza bitxi horren berrikerik ere. Beraz, duen balio guztian aitortzen dut.

Gai hontan ere, euskerakiko guztietan bezela, baldintza hauexek gogoan izan ditut: euskera guztian ukateziñezko indarrez ageri zaigun erroetatiko irukoiztasuna. Gaur eguneko gauzen taiukera eta izatasu-

Astelen	Astearte	Asteatzen	Eguaste	Eguren	Egubako	Laurenbat
Aste-egun	Nesken-egun	Jai-egun	Illen-egun	Igante-egun		
ASTE	ASTEBETE					

Izenkada hau EGU jainko-izenaren inguru eratua da nunbait. Beste izen asko ere talde hortakoak ditugu: *Eguberri*, *ekain*, *eguzki*, *ekaitz*, *egualdi*, *negu* eta orain aipatzen auzartzen ez naizen beste bat edo bi.

Izenkada hontako lehenengo irurak, astea osatzen dute (*as-te* =

nen loturetatik ene irudimena jarraitzea). Eta itzak (egun-izenak oraingoz) taldeka ikertzea, sorterazi dituan gizarteak eman dien estruturata urbidu nahian.

Beraz, alde batera uzten ditut gaur egungo uste errotu edo oihurtaz oiñarritu batzuk eta bide-bageko aurre-eritxi guztiak. Barkatuko didate oraino egunen izen-kadarik modakoena dogmakiro hartu dutenek (astelen, astearte, asteazken, ostegun, ostiral, larunbat eta igande) baita irudimena zabalegi edo estuegi dutenek. Ez baitut siñeskeriaz siñesten, paradisuoko hizkuntza zoragarri batean eta are gutxiago gizatalde basati baten erdi-izkera arrote batean. Euskera zer izan dan, gure izkerak berak eskaintzen dizkigun argiak erabiliz azalduko dugu, eta haridura asko hartzeko garelako irandik, nik uste.

Bide hortatik, ez zaizkit ezin-besteak, *egustan* eta *asteatzen* egun bat bera izan direnik edota *larunbat* eta *igande* bi egun bereizi izan behar direnik.

Euskaldunen artean egunei dagokien izenkada bat baino gehiago erabilia izan direla uste dut. Iru behintzat aurkitzen ditut ene eritxi. Eta zituzten jainko-izenetatik sorteraziak zirela (hauek ere iru erroतिकoei baitirudite).

Bestalde, *aste* ta *astebete* itzak ez dutela adikizun berdiña uste dut, gaur egun ere, baserriaren artean behintzat, horrelaxe dalarik. Astea, astegunez, lan egunez osatua da, eta astebetea, astegunez eta jai-egunez.

Begira nola ikusten dudana izenkada hoetatik bat:

comienzo, commencement) lehena artekoa eta atzena direlarik. Aski garbi ageri zaigu, «astea» osatzen zuten astegun utsak zirela. Laugarrena, jai bezpera, EGUri opaturiko jai gertatzeko eguna zitekan (*Egu-aste* = comienzo de las fiestas de Egu, commencement des fêtes d'Egu).

Bosgarrena, jainkoaren eguna, jai eguna, guztietan beñena. Seigarrena, jainkorik bageko eguna esan nahi duala dirudi (eritxi hau epaitu baino lehenago, lan hau amaieraino irakurri ezazu mesedez). Eta zazpigarrena, illargiaren birako «lauren bat» betetzen zuan eguna nunbait.

Izen hauek, sorkean bederen, «egun» edo «eguna» itzaz erabilia izan zirela dirudi. Honela, «aste-ilen eguna» aste-arte eguna, «aste-atzen eguna» «eguste eguna» «egun-eguna» «egubako eguna» (edo «egubako eguna») ta «laurenbat eguna».

Zazpi egunetako astebetea, lau astetako illabetea eta amairu illabetetako urtea izan zitazkean antxiñetako denbora-neurrietako arautan. Arrotzen erasoekin zerbait aldatuz joango zan jatorrizko eraketa (izenetan bederen) ta kristau siñeskera sartzean guztiz iraulia izango zan. Hala ere, euskal-munduan hontan nunahi somatzen dan harrigarriko irauenen, era askotako azterrenak irauenerazi ditu ta gaur, zuhur eta zorrotz ari gero, antxiñetako mundu hurra, gehienbat azaldu dezakegu. Hortan saiatuko gara.

Egun bakotzak, bere izen bereziaz gain, bazuen beste bir-izen bat ere ageri danez (gaur egun ere gauza bera gertatzen dalarik) egunak zuen zentzuzko izen bat. Azter ditzagun arinki bada ere, bakotxa berean: iru lehenak *astegun* dira, orain bezala, osoko lanegunak. Garai hartako giza-erakundean, lan gogorretarako aski izango zan hori, nik uste.

Eguaste (orain «egustan», n itsatsiaz) jai bezpera, gaur egun bezela (Barandiaranek esan ohi duenez gauza berri gutxi izaten baita gure mundutxo hontan) jai-usaifizeko asteguna zitakean. Jaiako gertakizunak egiteko eguna, beraz nesken eguna, orain larunbata dan bezelaxe. Hortik *nesken-egun*. Gero, jainko-jai ostegunetik igandera pasatuz, jakiña, bezpera hori larunbatera aldatu behar. Bizkai aldean, nik sarritan entzun izan dut, egustena neskatillen eguna dala, baita amabirginiarena ere.

Eguren, izenak diñoan arauz, jain-

koaren eguna, *jai-egun* izango zan. Orain igandea dugu *jai-egun*, egun hortara aldatua dugulako jainkoaren eguna. Eguren honi buruz, «eguren egun» formaz batera, Mixelenak diñoan «eguren-egun» ere erabilia izan dala dirudi.

Egubako izena dugu politenik (Mixelenari ainbeste lan eman diona) Sarkaldean ukagilletzat (hauetan ere iru nabari ditugularik) «ge» erabiltzen da gehienik: «Ge» = *bage*, *baga*, *bako* (bageko) ta *barik* (bagerik). Beraz, oraino «Egubakox» eta «Barikox», ene eritxi, *egubako* ta (*egubako*)-*bariko* ditugu. Zentzun hau indartzeko badiugu ainbat laguntzailak; orain ere, bizkaialdean behintzat, egun hau, «sorgiñen eguna» dugu, «gaiztagiñen eguna», hildakoen arimak bideetan ibiltzeko eguna, «defuntuen eguna». Umetan entzun genituen ipuñetan, beti entzun ohi genuen, barikuetan deabrua libre ibiltzen zala. Zentzuzki atera dezakegu, antxiñetako erlijioan egun hau, jainkoa izkututzen eguna edo zala. Orain ere, gure baserriar askoren ustez, egun hontan ez da ezkondu behar, ez eta bideetan jarri, ez artalderik mendiratu naiz oillo-lokari arrautzarik ezarri. Eguren hontako berri-eltzeak txarrak izan ohi dira eta trumojak barikuz, berrogei egunerako ekaitza omen dakar. Eguren hau, biharamuna zan, jai-egunaren biharamuna nunbait.

Eta gaur egun ere, euskal zentzua galdu ez dan eskualdetan, jai

Astelen Astearte Asteatzen ? Ortzegun Ortziral Laurenbat

Hemen, «Ortzi» edo «Urtzi» jainko izena dugu sorterazle. *Ortzegun* (ortzi-egun) *Eguren-egun*-en kide eta zentzu berdiñeko dugu.

Ortziral (ortzi-ral) ere, *egubako*-en kide berbera. Izan ere, sorkaldean iñoz ageri da *-al* ukagille hori. Begira: «iz» argi zentzuz haritzen baldin badugu, bizkaieraz *ge-iz* egiten da («geriz» eta «keiz» = *sombra*, *ombre*) eta sorkaldean berri *itz-al* = *sombra*, *ombre*. Beraz, «ortziral» izenak ere, ene ustez, «ortzi-bageko» esanahia du. Jai bezperaren egun-izena galdurik dala dirudi izenkada hontan. «Ortzaste» edo «aurregun» edo izan zitakean, baiñan oraingoz behintzat, dagonean utzi beharra dugula deritxiot.

Irugarren izenkada dugu politena ta jakingarriena, alde askotatik begiratu. Hala ere, gaurko aski dugula uste dut eta bestalde, ez dut zalaparta gehiegirik atera nahi. Gaurko golkoan utziko dut beraz.

—oOo—
Etimolójikeriek kalte gehiegi egin


biharamuna «hillen eguna» da. Hontaz, Barandiaranek egin dituan lanak oso jakingarri ditugu. Luzape-nik bage, nire ustea hauze duzue: eguren honen zentzuzko izena *illen-egun* izan zala ta jai eguna iganderrateaz izen hau astelanari erantsi ziotela.

Laurenbat eguna, illargitearen lauren bat osatzen zuan eguna zan nunbait. Euskal astebetearen egunik apalena noski. Jai-egunetatik astegunetara igan eguna, beraz *igante* (igan-te = de paso), Neronek, *larunbat* forman bakarrik ezagutzen nualarik, arrotz jatorrikotzat etsia nuen eta *igante* (ez nekian hau ere forma hontan erabilia izan zanik, Mixelenari irakurri arte) hartua nuen illargi-bira edo illargitearen lauren hori betetzeko erabilia bezela. Baiñan orain askoz tinkoago gelditzen da izen-bidetzeko hau. Askok luatzen ginteke izen honi buruzko eritxietan. Hemen ageri baita kristau siñeskaren sartuerako auzia eta eragifia. Baiñan gaur ezin dugu hontaz jardun, astekariak bere neurriak ditualako. Hala ere, ohar irakurle, «laurenbat» eta «eguren» izenak erdeñatuak izan zirela, baiñan ez ordea «igante» ta «jai-egun». Gero, «laurenbat» eta «igande» bikoiztuak izango zirenez, zazpiko izenkadaz irauteko, beste egun-izen bat galdu behar zan. Sorkaldean jai bezperarena galdu bide zan eta sorkaldean astegunetaren.

Bigarren izenkada, beste hau litzake:

dutela euskal alorrean, egiztatu behar bagekoa dugu. Uste honek eutsi nau ixillean luzaro. Hala ere, gure izkera sakonagotik ezagutu beharra dugula uste dut. Eta gure izkerarekiko bide-gurutze larri batean garelarik, indar guztiak hontan ezarri beharra ditugula. Eguren dudana, bide hortan egingo dut, ez ene burua loriatzeko edo «denborapasa». Gaurko hau; sortu dezakegunaren xipritziña bat besterik ez da, ondorentxo bat besterik ez. Holaxe egitea iruditu zait onenik. Galileo berri izateko gogo bagerik, urteak igan ditut, nituan aurkipe-nak ikuskeri edo uste-izun izan zitakeanaren leitasuna agertu zain. Hala ere, iñoz baino tinkoago naiz ene usteetan. Urruntxo dagoen nortekin ere gauz hauetzaz mintzatzeko nahi nuen; baiñan oraingoz ezin dudalarik, «xipritziña» hauek argitaratzea otu zait. Gure jakintsuek barkatuko naute ikasketaz eta tenikaz hain urri izateaz, sasi-letradu izateaz.

KAPANAGA



SUKALDEKO MUEBLEAK
EDERRAK BEZAIN EGOKIAK

FELIX ETXABE, S. L.
Urrutizkiña: 891754
ZALDIBIA (Guip.)

LIBURUAK

USA-ren Agintaritza eta Dolarraren Ahulezia

Badugu, berriki argitara emana, euskeraz prestatutako liburu interesgarri bat. Interesgarria derizkiot, arrazoi batzurengatik. Halere, ez dut alde hontatik luzatuko, ze Zeruko Argia beronetan Gurutz Ansolarekin egindako elkarrizketan garbiro agertzen bait ziren arrazoi horiek. Dударik gabe, halako gai batez liburu bat prestatzeak, euskeraz prestatzeak, badu beti garrantzi handia. Badu garrantzi handia gure herriko jakintsuek bere lanak euskeraz prestatzeak (batez ere tenore hauetan, hitzegitea eta idaztea, maizenik, ganorabakoan esku dagoen tenore hauetan).

Eta bestaldetik ere, diru-sistimaren kinka larria eta dolarraren mesbaliatzea bizi-bizi dauden arazoak ditugu egun hauetan; alde hontatik ere, ezin uka liburu honek ezin zezakeala momentu egokiagotan ageri.

Bestelako aipamenik ez baina liburuan barna agertzen diren gai guztietaz jardutea nahiago nuke. Baina alde batetik asko dira eta bestaldetik, ikasle izanik, ez dut behar den maila Ansolara irakasle jaiolari neholako kritikarik egiteko kapazitatea gehiegirik. Halaz ere zerbait esan gogo dut.

Lehendabizi, liburuari zeharo pedagogiko derizkiot. Betarik izan dut lehenbiziko aldiz inflazioa euskeraz ikasteko; liburuaren lehen parte hau askotxo gustatu zait. Teoriak eta modelok ondo baiño hobeto aurkeztuak (nahiz batzutan euskeraz zeharo «billatua» erabili), eta are gehiago gustatu zait Ansolak erabiltzen duen metodologia; batzutan, batez ere datok erakusten dituzten zerak aurkeztuak, lehergarri, «aplastante» derizkiot. Ikus bestela Gehiegizko eskariaren teoria» ari delarik, Denis-i eta gailontzeko «luxenburgistek» ematen dien egurra. Garbi azaltzen digu teoria bakoitzean agertzen diren bi zerak: «Aztertzailerok, azterkizunari bere ikuspegi batez so dagoelarik, errealtatearen alde eta saiheats bat edo beste berezten du, eta, esplikazio orok hau dakar: alde batetik, arazoaren edo aztergaiaren saiheats bat bereziki ematen digu; beste aldetik, berriz, aztertzaileraren beraren pentsakera eta ideologia nabarmentzen du».

Horrela «Diru-kopuruaren teoria» ari delarik: «Horregatik, bada, garbi dago «Diru-kopuruaren teoria»

ideologiaz arras kutsatua dagoela; zeren, talde boteretsuen interesak aldezkatzeko gisako pentsakera bait da».

Liburuaren hirugarren partean bada gauza anitz, agian gehiegi aipamentto hontan haiezta jarduteko.

Han agertzen zaigu Zeruko Argiaren orrialde hauetan ezagutu dugun Ansolara, iritzi eta dato jakingarriak emanaz. Luzeegi Litza-guke benetan horiei guztiei buruz jardutea.

Badago ordea liburuaren beste gai bat, behar bada merezi duen heinean ukitua izan ez dena. USA-ko sindikatoen zera, alegia. Ansolak berak, berari Zeruko Argian egindako elkarrizketan honela zion: «Nire inbestigazioan, ordea, zera arkitu dut garbiro, hots, delako «USA-ren inperialismoan» ez daudela oligarkiak bakarrik, aitzitik langileen sindikato anitz ere «bere erresumen altzoan» gogara daudela, itxuraz, eta bere aberriaren inperialismoa barrendik leherarazteko ahalegin guti egingo dutela, oraingoz...».

Azken honi oso garrantzi handikoa derizkiot, batez ere betiko «Intelektual», «progresista» eta «marxista vulgaris» horiek arazo honi uko egin nahi diotela ikustean. Hitz batean, badirela erresuma desberdinetako langileen arteko jazar-go edo kontradizio antagonikoak. Arazo beronetaz idatzi nuen Zeruko Argian («Langilleria eta beste problema batzuren inguruan, I eta II»).

Arazo hau berau gogoratu dit duela guti Larresorok Amilcar Cabral ginear abertzalearen heriotzari buruz idatzitako artikulua; guti gora behera (ez bait daukat eskura haren artikulua), honela zion Larresorok: «Amilcar Cabral ginear abertzalea zen, ezen ez portugaldarren etsala».

Ez da oso azkarra izan behar Larresorok itz horiek esatean, Euskalerriko arazo duela gogoan. Izan ere Portugaleko langilleak eta ginear abertzaleak «anaiak» dira; izan ere, USA-ko langilleak eta Boliviako langilleak interes berdiñak dituzte. Ja!

Bainan utz ditzagun zera horiek beste baterako eta bitartean, euskal ikasle naizen aldetik, zorian eta mila esker Gurutz Ansolari bere lan bikainarengatik.

GORKA KNÖRR

XARIBARI

Euskal Antzerkitalde berriarekin ELKAR HIZKETAN

Urtarrilaren 27an Atotxako Aita Frantziskotarren aretoan bildu ginen. Euskal antzerki-talde berri batek antzerki lan ikusgarri eta mamitsu bat agertu zigun. Talde berri honen izena: XARIBARI. Gure artean ditugu orain Xaribari taldeko gazte batzu, berri emateko gertu. Elkarrizketan hasi aurrez, gure ongi etorria Xaribari taldeari euskal antzerkigintzara.

—Noiz eta nola hasi zifaten antzerki lanean?

—Urtebete pasa izango da. Alde batetik gazte talde bat ginan, Atotxako Aita Frantziskotarren aretoetan biltzen ginarik laguntzean; eta bestetik lehen teatroan ibillitako batzu —erderazko teatroan— eta beste lagun batzu. Denok batu ginar antzerki edo teatro giroan zerbait egin nahirik.

—Nungoak zerate?

—Gehienok donostiarrak edo Donostia aldekoak gera. Badira Azpeitiar batzu eta Onatiar bat ere.

—Zer egin duzue orain artean?

—Gehienok euskera ikasten ari gera. Eta horrekin batera antzerki lanean. Euskera ondo ikasi bitartean, ezin egin antzerkia aurrez aurre hitzegiaz, eta horregatik, larunbatean agertu genuen antzerki lan ikusiko zenutenez, hitza grabatua zan zintan, eta gure aldetik hitzak zioena irudiz azaltzen genuen.

Badira gure artean euskera ondo dakitenak. Hauek ere antolatzen zuten beste antzerki bat, aurrez aurre azaltzeko hitz eta guzti, baina gutxi gera euskeraz ondo dakigunok —ondo, hitzegiteko gisan, esan nahi dugu— eta antzerkia gertu genuenean, batek aldegine beharra izan zuen, eta antzerki hura utzi egin genuen. Beraz, oraingoz, larunbatean agertu genuen antzerkiak bakarrik daukagu gertu, edozein tokitan azaltzeko.

—Gero mintzatuko gera larunbatean —Urtarrilaren 27an— agertu zenuten antzerkiak. Mintza gaitzen orain antzerkiak, antzerkia orokarki hartuz. Nundik jo nahi duzue eta zer ekarri nahi diozue euskal antzerkiari?

—Antzerkiak edo teatroak berri-



Paris eta Marseille-n antzezten ari diren «Onirocri» antzerkiatik jasoa.

tze haundia eta aurrerapen haundia izan du azkeneko urte hauetan. Bi aipatuko genituzke guk, berrizte hau aurrera eraman dutenen artean: Stanislavski errusiarra, eta Poloniako Jerzy Grotowski. Hauen bidetik joan nahi genuke guk ere, eta haxe eskeini nahi genioke euskal antzerkigintzari, guretzat ere jarraigarri bai da hauen bidea.

—Nundik doa, ba, hoi bidea?

—Oraindik sakonki aztertu beharra dugu hauen bidea; baina orain artean ikasi degunarekin aurrera goaz.

Zaila da bi hitzetan esatea nundik doan Stanislavski eta Grotowskiren bidea.

Hauetatik guk hartu duguna, edo hartu nahi duguna, da guk esan genezakea: Antzerki giroan antzeslaria edo «aktorea» dugu garrantziki haundiena duena. Antzeslariaren eginkizuna da aztertu beharrezkoa.

Antzeslariak bere barnea azaltzen du konfiantza-giro batean. Bera dena agertzen du bai talde zuzendariaren aurrean, bai taldekideen aurrean, eta bai ikusleen aurrean. Elkarren hartu emanetan egiten da antzerki lana: elkar ezagutu eta elkarrekin bakoitzaren nortasuna aberastuz.

Antzerki era honetan ez dira beharrezkoak ez apainketak, ez eszenarioak. Antzerki pobrea da. Bere gorputz hutsa nahikoa du antzeslariak, barnean dituen indarrak agertzeko.

—Zer dakarkio herriari antzerki era honek?

—Taldek hartu emanetan eta elkarren lanean, herriaren eta gizartearen onerako dugula uste dugu; herriak eta gizarteak lortzen duen zerbait bai da hori.

—Egitan ardura haundikoak zuen hitzak; oraingoz ez dugu betarik eta ez tokirik idea hauek sakonki aztertzeko, baina beste egunen batean jarraituko dugu. Orain mintza gaitzen, laburki bada ere, agertu zenuten antzerki-lanaz?

—Batzar Nagusia du izena. Larro Olmo eta Pilar Enciso dira bere egileak. Hauek erderaz idatzi zuten eta guk euskeratu egin dugu.

Haurrei zuzenduriko antzerkia da baina bere mamia denei zuzendua da, eta hain zuzen zaharagoak geranok gertuago gaude mami hori hartzeko.

Bertan antzeslariak animalia irudiak dituzte eta irudi hauek baliaturik injustizia giro bat agertzen zaigu. Baina antzerkiaren mamia geuk esatea baino, egokiago iruditzen zait deia guzoi luza-tea: Euskal Herriaren zehar agertu nahi dugu lan hau, eta etorri zaitzete ikustera, zuen herrietara iritzen geranean.

M. U.

—Milla esker zuen hitzengatik, Xaribari taldeko lagunok, eta gure ongi etorria berriro euskaldunon antzerkigintzara.

Iñaki Zubizarreta

Antzerki baten bila

Gaur Euskal Herrian antzezteko oso zaila dala esan ohi dugu eta horrela gertatzen da. Zailtasun guztien aurretik, zensura dago. Zensura gogorra, euskeraz eman behar danean batik bat. Beste trabak bigarren mailan jartzen ditugu. Baina euskaldunok antzerki zaletasun haundia omèn dugu eta antzeztu egin behar, nahiz eta antzeztearen helburua aldatu edo zapaltzaile bihurtu. Zapalkuntzak edozein hizkuntza erabil bai dezake.

Hor eta hemen zer gai antzezten uzten dira? Bigarren eta hirugarren mailako arazoetan oinarritzen direnak. Zergatik? Herriak lehen mailakoak, beretzat garrantzi handienekoak utz ditzan, ahantz ditzan.

Politika giroak, berari ongi datorkion antzerkia utziko du aske edo hari lagunduko dio; teknikaz ere ahal den ongien hornitua azal dadin saiaturko da. Berak kontrolatzen dituen zabalkunde medioz jakin araziko du zein dan benetako antzerkia. Jendea joango da ikustera eta «ona» dala esango du.

Esaten dutenez, antzokiak ez dira betetzen, baina beteko balira, antzerkia ez litzake arte, edo horrela konpreni araziko ligukete. Artea, agian, buru apartarentzako bakarrik baita...

Zerbait gai ukitu behar dela esaten badugu, beti gauza berekin gabilzala erantzungo dute. Baina egiaz badira gai ederrak eta beharrezkoak, familia, heziketa, justizia bideetatik bagoaz. Nahi eta nahi ez, lehenbizi hauek antzeztu behar dira.

Antzerkia ez da herrikoia izango «herriak» bizi dituen baldintzak jasotzen ez baditu eta herriaren ikusmirak ez baditu azaltzen. Biak dira beharrezkoak baina bigarrenak du garrantzi gehien.

Eta ez dezagun esan ezin egin ditekeneik, ez bait dugu proba egin. Baina gu bezelako egoeran bizi diren zerbait herri egin du. Brasilek adibidez, Irakur Augusto Boal.

Occitaniako «Théâtre d'OC» en, horrela dio: «Guretzat hau ez da gure herriaren zapalkuntzaren aurka dramagun guduako arma bat baizik; denen aurrean gure herriaren ito-beharrak publikoki salatzea baizik. Ez dezazutela, bada, gugandik espero antzerkiaren helburuaz eta estetikaz bilaketa eta azterketa bat. Gauzak diran bezala eta ahal dan bezala esan nahi ditugu. Gure nahi bakarra, adieraztea da».

Zer bide dago honetarako Euskal Herrian?

«Thatre-journal» delakoa egin ditekete hemen ere, nere ustez. Herriak berak egiten du antzerkia. Berak aukeratzen du gaia eta ez zaio axola haundirik ongi egiten duenez, berak egiten duena jendeak ulertzen badu; esanahia iristen ote zaion baizik, bere arazo azaltzen ote duen eta soluzio biderik aurkitzeko laguntza ote den.

Antzerkia edozein lekutan egin ditekete: kalean, mendian edo lantegian eta ez da beharrezko «historiak» kontatzea. Hitzek adierazi ezin dena, beste bide batez egin ditekete.

Ez da orduan antzerkiaren kritikarik egingo, orain gutxi irakurri dudanaren antzera: «Bakar-hizketak luzeegiak edo gehiegi direla e.a.» Antzerkiak bere helburua betetzen ote duen, edo, nahi bada, bere eginkizuna zelan den esango da, hots, antzerkia zertarako den.

Joxemari Arbelaitz

GIZABIZIA

hornitua, pedagogia oinarritzat harmi-irudiak.

Bikaina, benetan Aita Karlos Goenak, Zatarain eta Oregi euskaltzain laguntzaileen laguntzaz baliaturik, Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren babespean eskaini diguten lana.

Egungo momentuan euskaltasunez bizi ahal izateko amaren aldetik jaso genuen euskerak bakarrik ez digu balio. Sarritan familia artean, lagun artean, erabili ohi dugun hizkuntza oso arrotza da. Ez dugu horrelakotan eragozpide haundiegirik aurkitzen. Zientzia mailan, ordea, besterik gertatzen zaigu.

Liburuak bere sarreran dakarrena gogoan dugu: «Gizona ez da bakarka bizitzeko jaio, besteekin bizitzeko bearra eta premia sumatzen du. Besteekin elkarturik, besteekin artuemanetan, osatzen da, du nortasuna aberastean. Eta artueman eta elkartasun ori sortarazteko biderik egokienetakoa mintzaira duzu, izkuntza. Txalogarria, bada, euskera lantzen, osatzen eta gaurkotzen sailatzen diren guztien lana!»

Eginbide honetan gogotik saiatu da Goena. Berak sendagintza hartu du gogoan, sendagile izanik gaixoarekiko harremanak daduzka gogoan, hots, maila horretan, eus-


kaldunekiko harremanetan, euskera landuago baten beharra. Horrelakorik agertzen zuen Aita Goena berak liburuaren aurkezpen egunean.

Arazo honetaz erabat kezkaturik, euskera zientzia alorrean bete beteant itsatsia ikusi nahirik, ekin zion ekin, su eta gar, hiztegia moldatzeari. Ez zen nolana hiko lana. Bidea, berriz, aldatu eta luzea.

Halaz ere, lanak eta langileak garaipena berekin omen dadukate, bere lana burutu du. Hiztegi herrikoia, joria, aberatsa. Azterketa sakon askoren fruitua, talde lanean ongi baino hobeto burutu dutena.

Ondorenean, Garrido jaunaren marrazkiz apaindutako atlas bat dakar. Ulerterraza, kolore biziz hornitua, pedagogia oinarritzat harturik osatua. Oso lan atsegina bai goi mailako sendagile jakitunentzat, bai batxiller mailan zeregin horretan aurkitzen diren ikasleentzat ere.

Liburu honetan erabiltzen den euskera dela eta, euskera batuarekikoa dela eta, izango da eztabaidarik. Bere akatsak ere bai bait ditu, eta nabarmenak gainera. Halaz ere lanak, eta liburu hau ordu luze askoren emaitza dela ezin uka, txaloak merezi ditu. Sarritan esku artean erabiliko den liburu dela, irakasle eta hizlari entzatz baz-



tertu ezinezko laguna izango delako, hutsune ikaragarri bat bete berria delako, beste zenbaitentzat eredu eta akuilu gertatuko delako. Bejondeizula Goena, zorianak. Eta jarrai aurrera. Lana non egina badago.

M. U.

zeanuri

XABIERRERA

Karmel Larrakoetxea, Patxo Emaldi eta Bumuzio, martxoaren 4ean, Xabierrera joan ziren. Emendik zapatu eguerdian urten eben Arteako Gabrielosten automobileran eta Iruñetik Xabierrera oinez. Jente asko egon zen. Neu be eurekaz joateko asmotan egon nintzen bainan aurreragoko astean gaixorik gelditu nintzen eta olan egin dodaz aste bi eta ezin joan.

Orain, aurrerantzean, emengo alderdiko mendi guztiak arrakalduteko gogoia daukagu. Arratik erri guztietatik Areatzeko «Danon etxera» larogeiaren bat eroan dabez.

Zaarrak eta gazteak, gurasoak eta semeak. Gaiñera etxetara etorren ziren goizaldean eroaten. Entzun dogunez, geienak iru egun egin ondoren etxera bialdu dabez, baiña denak ez.

Lutuaren ostean, alaitasuna eta olan pentsatu dabe aurtun udal-txekoei. Ori dala-ta aurtun jai ederak eukiko doguz. Jai onek Udaletxekoak eta gazteak batera antolatuko doguz. Gaiñera uste dot inoiz baiño obeak izango direla, ze gauza errikoiek egiteko asmoa daukagu. Urrengo baten idatziko dot, zelango jaiak eukiko doguzen.

Baita, urte geienetan bezela, aurtun ere pelota txapelketa egingo dogu. Iru kategoritan izango da:

- a) Umeentzat: emen errikoiek bakarrik parte artuko dute.
- b) Gazteentzat: emen Arrati guztiko gazteek parte artuko dute.
- d) Nagusientzat: emen nai daben guztiak parte artuko dute; baiña aurretik euren kategorian beste txapelketa batzutan agiria bearko dute.

SABIN

segura

Aspaldi hontan, herriko berriak ez dira azaldu aldizkarian, eta ez berririk ez dagoelako. Hemendik aurrera, gure herrian gertatzen diren berriak, azaltzea da gure asmoa. Beraz, sarri-sarri ahaleginduko gara, orri hauetara azaltzen.

IKASTOLAKO BATZARRA

Segurako Ikastolak, urteroko Batzar Nagusia eginga du. Bertan 48 herritar bildu ginan; gazte asko, bainan ez hainbat guraso. Uste dut erantzun handiagoko itzaroko zutela juntakoek, bainan hala eta guztiz ere, Batzarra ederki joan zen.

Lana honela zegoen erabakia: a) Ekonomiko arazoa. Sarrera eta irteera ekonomikoak, agertuak izan ziren, bere xehetasun guzian.

b) Ikastolaren egoera Lege Berriarren aurrean.

Andereño batek «Educación General Básica» delakoaren azalpen bat egin zuen. Gurasoek beren kezak azaldu zituzten:

—Hiru urtekin edo seirekin, haurrak ikastolara?

—Haur euskaldun bat, ikastola edo beste ikastetxe batera, bidaltzearekin, zer ondorio dakazkie?

—Beasaingo Lizeora pasatzen direnean, zer giro aurkitzen dute?

Galdera hauei, eta beste askori erantzuten ahaleginduko ziren bai andereño eta bai juntakoak.

d) Junta berritzea.

Zazpi urtetan lanean gogor aritu diren hiru gurasok, junta utzi dute. Gure herriko ikastolaren hazia eta lehenengoko oinarriak, hauek, beste batzuen laguntzarekin, jarriak izan dira. Badakigu ikastolan gelditzen direla, nahiz eta juntako ez izan. Nere zorion beroena beren lanagatik.

Orain beste bost berri ditugu juntarako. Gaur egun ikastolaren beharri erantzuteko, denok jarraitu beharko dugu gogor lanean.

e) Elkarrizketa.

Une hontan, laguntzaileak izan ziren batez ere, beren iritzia azaldu zituztenak, herriko ikastolaren egoeraz.

Honekin bukaera eman zitzaion aurtengo Batzar Nagusiarri.

AMONA ROSINA HIL DA

Joan den hilean, gure herriko amonarik zaharrena hil zaigu. Rosina Iñurritegi bere izena eta Arriabala etxean bizi zen.

Orain dela urte bete, berekin elkarrizketa batzuk edukitzeko zoria izan nuen eta esan ditek amona Rosina, Euskal Herriko baserrietan aurkitzen diren aitona-amona jator hoietako bat zela. Igarotako denborari lotua eta gaurko eguneko bizitzaren aldaketa eta abia-da ulertu ezinik. Bere ahotik, makina bat esatera, ohitura eta gertakizun zahar jasotakoak gara.

Zenbat poz eta neke igaro ote zuen bere bizitzako 93 urtetan!

Sinesten zuen Jainkoaren pakean bego.

HARKAITZ

azpeitia

IHAUTERIAK

Igaro ditugu aurtengo ihauteriak ere. Azpeitian badirudi berriro ihauterik egunak indarberri nahi direla. Astearte ihauteriz herriko lantoki guztiak jai egin zuten eguna ospatzeko.

Hiru egunetan soka-zezena kaltetan gorabeheran orro eta marruz. Bai gazteria gozatu ere bere inguruan! Hauxe baino besta hobirik ez da azpeitiarrentzako. Zezena izanez gero hemengo jaiak gozoki alaitzen dira. Izan ere aspalditxoko ohitura zaharra bait da azpeitiarrok ihauterietan zezenaren aurrean saltaka batzuek egitea.

BASARRI JAUNARI

Z. Argia 522 zenbakian zeure asteroko sailetik niri zuzendurikako lan bat argitaratu duzu. Nik, Urte eta Otañoren arteko joko bide zelarik agertu nituen eritzin inguruan tajutu duzun erantzun bat hain zuzen. Nahiz eta aurkako izan, gizatasunez eta jatoritasunez beteriko erantzuna eman didazu Basarri, eta nik benetan eskertzen dizut. Eztabaidak ez dira beti-beti katagarri izan ohi. Ez gaitzek ordea asteroko baten, azken gabeko hika-mikatan ibil; nire aldetik beraz hau izango da gure «hauziari» gagozkiorik, azken erantzuna.

Gure jokoen garbitzaile eta zuzentzaile agertzen duzu zeure burua. Garbitzaile sutsua, oraingo honetan, inoiz bezain gartsu oihukatzen duzu zuzentasunaren bidea. Alderantziz, ni berriz antzinatoko usantza eta molde guztiak birrindu nahirik. Ohitura jator guztiak lardaskatu eta bidekaiztu nahirik agertzen nauzu. Denak zorianetan eta sorbaldala laztantzen ari zataizkizun garaian; ni arerio eta etsai.

Guk ordea ez dugu inoiz esan lehengo molde zaharrak oraingoak baino txarragoak direnik. Ez, eta antzinatoko arau guztiak oro, gaur egungo ez luperatu behar direnik. Oso urruti zabilta gugandik, hala pentsatzen baduzu. Oso besterik da nik aipatzen nuen eritzia.

Erbi beharrez katurik ez diogu inori eman behar. Ez, Basarri ni ere horretan nago. Ziri hau ordea, katua erbi bihurtzea alegia, oraindainoko araudien baitan egiten da. Lasai esko egin ere! Sarrerak dula pila ederra ordaindu eta lehenengo kintzea egiteko gauza ez. Leonkastilloa irabazi eta plazako teilak ohartzarainoko naba mentasunez, aurrea irten jokatzera. Lanak, nor bere ahalmeneren gisara ez baino trabesen arabera egin. Plazara baino lehen bata besteez hitzemandu eta nahi duten guztiak egin. Jokoa galtzera irten eta ezin galdu, holakorik ere ikusi izan da. Haur guztiak eta beste anitz, egitazko gertaerak dira ez ipui hutsalak.

Gertaera hauek ez dute jende gutxi atzeratu izan apustu tokititik. Hauek dira zinez gaitzestu beharrezkoak. Holakoetan ordea, zu Basarri ez zara hain zorrotza izaten, nahiago izan ohi duzu gaingiroki, denekin ongi gelditzeko moduko azalpen bat ematea.

Nik, neure eritz soil eta apalez ongi derizkiot egitura zaharreko eta berriko harriak erabiltzeari. Ni-

retzak jokoak ugaltzeko eta anitzeko bide bat da. Pelota jokoan erremontea, paleta trinketea, zestuzkoa eta eskuakoa diren bezala. Agian honetan Endañeta eredu izango da. Inork erabili ez dituen harriak darabiltzi, azkenik, ohiturak urratuaz baina, berundun harriaz ere baliatu egin da jokoa jokatzeko. Askotan entzun da, gure herrikirol hauek bizitu egin behar lirakeela, gutxitan jokatzeko galzoria ekar dezakeela. Hau ongi pentsatzeko puntu bat izan leike. Eta inolaz ez usantza zaharrekoetz etsai.

Zu Basarri nire eritziez bakarrik ez, nik darabilten euskaraz ere harritu zara nonbait. Bai ongi dakit ezer askorik ez dakidala gure hizkuntza maiteaz. Lotsa eman behar lekit, bainan hala da: Zuk salatu dizkidazun erru hoik, neroni ere ez naute gutxi txunditu halabaina. Goazen gauzak zatika eta bere tokian ikustera.

Harridura hitza: Ez dakit lehenetik zekizun Azkueren hiztegian leku zuelarik. Esango dizut baita P. Muxikaren hiztegi mardulean ere agertzen dela hitz «higuingarri» hori. Zu bertsolaria izanik, ez dakit «dura» atzikiak nolatan harritu zaitun hoinbeste; guztiz ezaguna baita gure artean. Larridura / apaindura / abiadura / etendura / Hedadura / mindura. Honela deitzen zaio J. M. Lekuonaren olerki sorta bati ere.

Duosin aipatzeaz hara nongo ohoretan sartzen nauzun. Badakizu Ainhoako semea oso zuzena eta arretatsua omen zela hizkuntza arloan. Norbait zelako aukeratu zuen Bonapartek, lapurteraz Biblia itzul zizaien. Bestalde, Duosin aipatzeaz urruti samar gelditu zara. Mende honek ez zuen ezagutu Jean Duosin. 1891 hil baitzen. Nik gertuagoko adibide bat emango dizut. Har zazu Salbador Garmendiaren «Printze Txikia», hamaikagarrengo orrialdean, pasarte batetan honela irakur haal izango duzu: «Biharamonean, egunsentian, mintzo arrotiki batek iratzarri ninduen. Pentsa ene harridura!». Printze Txikia goi-mailako letradunentzat ez baino ikastolako haurrei zuzendua dagoen liburu ezin samurragoa duzu, Garmendia berriz letrak ongi ezagutzen dituen idazle on bat, onik bada.

Azpeitian zenbatek erabiliko duten ere galdetzen duzu. Zure «lendandik», «arau» eta «bederen» zenbatek erabiltzen dituzte nere herrian? Azpeitian erabiltzen diren hitzak azter baditzagu lehen kolpez hauxe egin behar dugu: «S» eta «TS» guztiak kendu, guk ez bait ditugu Z/S bereizten. Sartu = zartu, sagar = zagar, atso = atzo, e. a. Arratsalderen ordez arratzalde idatzi dute, abestiren lekuan abezti, oraitso antolatu den antzerki baten egitarauan. Zer egin behar dugu, herriak hala erabiltzen duela eta «abezti» idatzi? Zedorrek ere, Basarri, ez duzu idatzen hitzegiten den bezala. Zure eztaukagu / eztaukeu esaten da Azpeitian. Eztezaigutela / eztiutela, e. a.

Nik gehiago ez «geyo» idatzi beharko nuke, eta azkoitarren esanez «geixo». Ondorik gabeko itsasoan murgilduko nuke neure burua, lokalismo hauei toki emango banio. Haatik euskara idatzian behintzak Batasuna behar dugu!

«Botere» hitza ez aipatzeko esaten zenidan, mugaz honuztik ulergaitz delako. Muga hitz hori ez dut batera gogozko, zuk muga deitzen diozun tokian, nik halakorik ez dut ikusten, baina tira! Kirol gaitan antzinatoko ohiturak maite badituzu ere, literaturaz ez bide duzu berdin jokaten. Honetan nik bezain berrizale zara. Botere edo bothere, Axularrek, bat aipatzearren, barra barra erabiltzen zuen. Begien aurrez-aurre dut Zuberoko elizetan erabiltzen den «Meza Saituko Othoiztiak» liburuskak. Zuberoko euskaldunek, euskaraz guk bezain ongi egiten dutenak, honela irakurtzen dute otoi baten zatia: «Zuri, Jauna, Aita ezinago saintu, Jingo oro-photeretsu bethierekua». Anaitasuna, eta Z. Argian Rikardo Arregi zenarengandik hasi eta idazle multzo haundiak, maiz erabiltzen duen hitza da «botere». Batasunaren Kutzako hiztegian ere ongi esko agertzen da bere esanahia.

Nik ere maiteago dut zure «lendandik» baino lehendanik, ebaten baino ebakitzen, frontoi batean ordez frontoi batetan mugagabearen kasuan deklinatuaz. Halare nik guztiz errespetatzen zaitut. Zuk idazkerako bide bat aukeratu duzu, nik ere bai. Biak ordea ez berdin dira.

Zer egingo dugu ba... Joanes Etcheberri ziburutarrek esaten zuen bezala «hitz eta mihi diferentetakoak» bait gara. Obra falta bada ere ez zaigu falta nahia.

Ni zuretaz ez ezagun omen naiz. Beharbada zeuk uste duzun baino ez ezagunagoa gainera, ze, Joxe Artetxeri eskainitako «Canto a Joxe» liburu egileen berri eman zenuenean; nerea ez beste gainontzekoen izen guztiak aipatu bait zinduzun. Ohar hau azpeitiar adiskide bati zor diot.

Lehenengo eritziez aldatu ez bazara, ez naiz harritzen ene idazkera zuretaz gogozko ez izateaz. Ororitzen naiz, duela zenbait denbora, Bodegon Alejandro, nere adiskide Altuna eresleria lekuko zelarik, zuk eta nik egin genduen elkarrizketaz. Zuk hala zenidan: «oraingo idazle askok, «H»a eta mordolokea darabilte, hobe lukete gramatika legeak ongi ikastea». Egia, pikua sagarrak ematen ez duen bezala; «H» hutsak ere ez du Batasunik finkatuko. Izarraitzen mendia eliztikoko hainko egia bota zenidan Basarri. Nere egiten dut aholku hura. Bego nik agindurik! Zure aholkua betetzen gogoz saiatuko naizela. Eta zu, Basarri, orain arte bezala gazte, gogotsu eta langile jarrai dezazula.

ANATSAN

bergara

AUTOPISTA

Oraingo ontan bada errian zarata eta istillua. Ez da gutxigorako.

Bai, gizona, autopistako planoak eldu dirala ta bada sartu-irtena Udaletxeko gela nagusian.

Jakin dugunez, Bergara alde ontako ibar au, zubi aundi baten bitartez nai omen dute ebaki, eta onen azpian gelditzen diranak eskubide guzietan, ai esaten dute.

Urte batzuek igaro dira, autopistakoek ibili zirana emengo mendien errailetako gogortasuna ikusten; gau eta egun ibili ziran inon diren barautz, tramankulu eta nik ez dakit beste zenbat tresnegaz.

Ordutik ona, Bergara etxe apañez omitu da.

Sortu diraz, esaten oi danez, zenbait «poligono residencial» eta emen zeok koxka, orren gainetik zubi aundi bat asmatu dute egitea, merkeena dalako.

Zubi aundi bat bear bada, geuk ematen degun iritzia ezertarako balio al du?

Angua gainetik ikuspegian dago Eskoriatzako Aitzxorrospe eta baita ere Apotzako Zarra-txiki. Or erabakia, andik eta Betoñora beste orrenbeste egin lezakete.

Zubia alan egiten baldin bada, ez det uste gure erri zahar ontako alderdi berriek gauza ederrik izango duan, kaltea bai, galanta.

Pentsa zazue, naiz eta zubiak 25 neurkin euki gora, onen azpian eta inguruan ezer ezin liteke egin; lenen, lurrez ondo estuak gabiltza eta alako zati bat kentzen baldin badigute, zer jokabide, onek berekin daramazkian auts, ke, ots zarata, erorbide, traba, e.a.?

Pentsa dezagun, zubi onen pean eta onen inguruan zenbait etxe gelditzen dirala eta egun batean onen gainetik dijon tximista baño azkarrago zenbait gutarin, auen gainera erortzen dala; orduan izango dira zenbait buruaste eta neurriak artu bearra, artu baldin baliteke; betoz ordu onen pista, autopista eta astopista, bainan bear dan bezela; laxter zer izango ote da? Zaurtarre galde eginbearean izango gera.

ILLERRIA

Jakin degu forense jaunaren bitartez, gure illerria beterik arkitzen dala. Au, ez da oraingo arloa, asmoak ere ez dirade txarrak, betiko lelora gatoz, diru premia.

Alan eta guztiz ere azkar erabakitzeko, etxe bizitzaz ia inguratuta arkitzen baita. Gure Udalak badu bururako betegarririk.

MENDIKOI

pasai antxo

BUENAVISTAKO JAIAK

Azken kronikan agindu bezala, hemen dakarkizuegu Buenavista hauzoko jai antolatzaile batekin edukiriko elkarrizketa:

—Noren laguntza jasotzen duzue?

—Laguntzarik gehiena Donostia-ko herriko etxetik (?) jasotzen dugu. Komertzioa, enpresena eta hauzoko lagunena kaskarragoa da.

Inolako biltoki edo soziedaderik ez dagoenez, antolaketa kuadrila gazte baten esku geratzen da. Aurtun, denek parte har dezaten, inkesta moduko bat egiteko asmoa dugu familien artean.

—Proiektu nagusienak?

—Egia esan, oraindaino eginikoa hobetu nahi dugu, bai festa hutsen aldetik, nola girotik.

Anitz asmo badugu, baina gure prolema —hauzoko guztien prolema berbera— irurik ezean datza. Dirurik ukanez gero, gogo faltaz ez lirateke jaiak galduko.

—Euskal giroaz zer diozue?

—Uste dugu hemen jai oro euskaldun behar duela izan. «Euskal Jai»-ak, azken finean, traba bat dira. «Euskal Jai»-en etapa erreka dago, zenbait tokitan behintzat. Giro osoa euskaldundu egin behar da.

Gure ahaleginen neurri herstuan hortara joko dugu guk ere.

HANDIK ETA HEMENDIK

—Beste gauza batzuren artean, Erreterian ospatu den «Euskal Kultur Aste»-an harrituta utzi gaituen zenbait ikusi ahal izango du: liburu-azokan, Lur editorialaren libururik ez aurkitzea.

Ta guttiago harritu gaituen kasualitate bat: inork ez digu argirik egin honetaz.

—Otsailaren 25ean «Diario Vasco»-n argitaratutako lan batean hau irakur zenezakean, margo baten pean: «Casa natal del gran poeta vasco Axular». Literatura-aztertzailek badela hor nunbait, alajaina!

—Itsasoaren sabela zulatzen hasiak dira. Noruegarrak.


—Diru pila handia eskalni omen diete hortarako. Amerikanok.

—Hego Euskalerriko baporeek ezin dezakete Hendaia aldera jo arrantza bila.


—Azken kronikan, dantzan jarri genituen jakintsuak eta sasi-jakintsuak. Haserre bizian omen dabilta norbait. Ez da hain seinale xarra: egia esateak antzekoak dakartzin!

—A, zentsurarik ez balego! Ederrek botako genituzke, eh, irakurle?

BERRITSUAK



Pasaia



Azpeitia

ormaitzegi

Erri koxkor onetako berririk aldizkari onetan ez degula jaso eta, lan oetarako nik baino luma zorrotz eta trebeagoa dudan bat esnatuko ote dedan edo, natorki-zue gaurkoan zahar au.

Udaberria gerturatzen gatozen eran, zerbait suspertu ere egiten gera soin-gailurrak zuri ditugunok eta Otsailtxoa burrutatu eta kuku etorreraren zai gaudela, onelako zerbait amestea arritzeko ez dala, derizkiot. Oek orrela, barkatu ba nere ausardia.

Ta zer berri Ormaiztegin? Erri txikia dalarik, aundirik ez, baina gaur egun alderdi gehientxoetan sumatzen diran alkar ezin konpondu eta taldekeria nabarmenak bai ordea. Gazteak beren bizikeran buru auste-gehiagirik nahi ez dutelako eta urteetan aurrera goazekoen gehienetan geuren astoari arre egiten saiatzen guralako, bada emen nahikoa lan.

Dana ez da ordea era onetari-koa, alderdi onak, aipagarriak ere baditu eta ona batzuk.

Santa Ageda aldia zalata, ikastolaren alde laguntza eskean, kantari irten zan taldeak oraintsu bildu zuan diruketa, erritxo baterako, ez da nolanaikoa.

Orretan ez degu aitzakirik, erritar guztiei esker aundiak eman beharra baizik.

Ikastolako giroa ere, ona dala dirudi. Gurasok eta ortarako izentatuta daudenak, oso konforme azaltzen dira behintzat eta.

Oargi taldea zerbait suspertzen asi ote dan aditzera degu. Ori ondo. Zuei begira sortuko dituk erriko arazo gehientxoak. Zuek girtzea eta tartean sartuaz kutsatzea bidezko dek beraz.

Kirol aldetik berriz, badegu zer aipaturik. Mayora anaien trebetasuna alegia. Europako ciclo-cros lehiaketarako ankeratua izan da zaharrena eta Espaniako korrikalari gazteen artean txapeldun, lehenengo egin du besteak. Zorionak bioi eta jarrai aurrera goratze orretan.

Beste gauza batzuk aparte, lana degu emen nagusi. Seireunen bat lan-toki inguru dituan erri koxkor bat, zerk nabarmendu lezake izan ere gehienbat.

Lana ez da nola nahi egingo, lantegi guztiak buruz gainka arkitzen dira behintzat oraingo eta gehienak azteko bideetan gainera.

Oraindik orain, izan degu lantekari buruz erri onen izena goi mailan jarri duan gertakizun go-goangarri bat. Autobusak erlatzen dituan Irizar kooperatibak, Sevillako lehiaketan iritzi dituan saririk gailen "Giralda de Oro" bat eta bi brontzeko alegia.

Orri zegokionez, inguruko aldizkarietan arkitu du garaipen onak bere oihartzuna eta bide batez enkuestaren bat egin zaio lantegiko zuzendariari.

Aldizkariaren batean azaldu dituztenak ordea ez dira guztiak egiazkoak eta esan ez diran itzak nor-nahiren ahotan jartzea ez da bidezko.

MILUDI

deba

S. LOIOLARI IDAZKI AGIRIA

Deban, «Centro de juvenesen» Lendakaria zu omen zera. Zentro orrek multikopistaz egindako LUZARO aldizkari orren Zuzendaria ere zu zentralik. Egia esan LA VERDAD MUTILADA izenburu duala al-

dizkari orretan argitatu dezun «artikulu» orrekin ez dituzte goratu ez zentroa eta ez aldizkaria.

Gizona gizon danak, gizarte-legeak gordetzen jakin bear du, batez ere zerbait aizatu nai duanean, eta ez berak ikusi ezin duan nor-baiti kalte egiteko idazkorta artu. Auxe da zuk egin dezuna orain-goan.

Lendakari eta zuzentzaille izateak ez ditu ematen, baietz uste badezu ere, erriko bikario jaunari elizan (bere barrutian) artarako edo onetarako duan diru-laguntza eliztarrei eskatzea, eta diru au bear bezela eralgi duan, zure aldizkari orretan kontu eskatzea.

Edo nik ez dakit erderaz, edo zuk ez dakizu gizarte gizonki azaltzen. Baliteke nik erderaz ez jakitea eta zuk idatzi dezuna ez ulertzea, baiña ondo dakidan gauza bat esan bear dizut:

Aztiria jaunaren alargun zan Andre Maria Luisa Muguerza zanak, testamentuan Debako Parrokiari utzi zizkion bera bizi izan zan etxe ederra eta onen inguruko lur zatia.

Andre on au il zanean, emaitz auen jabe Parrokia egin zan. Orduan gure bikario Arrinda jaunak, Debako gaztetxuentzat ondo baiño ere obeto etorriko zala, ta «2.ª en-señanza izenez ezagutzen degun ikastaroak egiteko eskola-etxe aundi eder bat egin zuan erriaren eta errikoak ez diranen laguntasunaz. Baita eskola iriki ere buruaste galantekin aaleginak egin ondoren.

Geroago, erritar Ostolaza anaia jaunak utzitako diruz, beste eskola aundi eder batzuk egiñak dira. Inguruko baserrietako umeak ikastara ekartzeko autobusa ipiñiaz, bazkari ona merke-merke emanaz eta abar, bearreko diran erreztasun guzkiekin.

Baiña Deba erri txikia da onelako eskola eder biren zama jasotzeko, eta esan ol dan bezela, ari meenean etetzen da, eta Parrokiaren Segunda Enseñanzako ori itxi egin da.

Baiña or gelditzen zaio parrokiari, etxe ederra ta galanta ikastolatarako egiña (ikastolak eskuela edo kolegio esan nai du) ta Arrinda jaunak, on dala berak iritzen dionerako toki eman duala. Emendik al dator zure miña, Loliola jauna?... Nik baietz uste, ba zure «artikulu» orretan belarria geiegitxo erakutsi dezu euskal-ikastolak apaiztean. Ara zer diotuz:

«Todos sabemos los problemas que tienen los niños de los barrios al entrar en un Colegio: el shock que reciben, el complejo de inferioridad que les entra, el retraso que les supone en los estudios, con lo que les cierran automáticamente el camino a todas las carreras superiores...».

Pentsamendu onek ez du zure burutik irten Loliola. Au ipuin zarrara da. Aspaldi aspalditik euskeraren arerioak darabilena. Baiña gaur ikastolatarako umeek, bitara dakite itz-egiten euskeraz eta erderaz beste edozein ume bezin ondo, eta ez daukate «carrera superiorra» egin al izateko bildurrik. Unibersidadeetako gazteak eta aietatik kanpora ere, beren gurasok euskeraz itzegin ez ziotela, euskera jakin ez eta, asko eta asko amak entzuten dute au: «Por ti no sé hablar euskera, porque no me hablaste de niño». Ta... entzun egin bear!

Bestetik, gaur ez dago orrelako «problemarik». Kalean naiz baserrian «radio», ikuskiri edo telebisiorik ez daukan etxerik ez da Euskalerrian, eta umeak jai orduko oitzen dira erdera entzuten, eta eskolara datozenerako badakite izketan ere.

Zertara dator ba zure ateraldia? Ikastola parrokiaren etxean egotea al dezu min? Ortik al dator biki-rioa ikusi eziña?

TENE MUJIKIA

mutriku

GOIZEKO IZARRA

Egin berria da «Goizeko Izarraren» urteroko batzar nagusia aurreko egun haietan.

Orain dela sei bat urte sortu zen «Goizeko Izarra» elkartearen bile-rra. Euskal alorretan lan egiteko eratu zen talde herrikoia hau. Eta bai benetan lan egin duela. Hor ditugu nekez lortutako fruitu gozo eta ederrak. Esker dezagun. Azken batzar honen eskema, hau izan zen:

a) Azkenengo Batzar Nagusiko agiriak irakurri.

b) Diru kontu eta arazoak azaldu.

c) Taldeetako ekintzak.

d) Elkarte lehendakari eta batzorde era berritzea.

Puntu edo gai askotan oso el-karrizketa egokiak entzun ziren, bai eta gazte batzuen iritzi, kezka eta asmoak ere. Aztertu ziren taldeetako bakoitzaren eginkizunak.

Ikastola. Antzerki taldea.

Dantzari eta txistulari taldea.

Ikastolaren arazoetatik kanpora, une larriari daude, puntu hontan, dantzariak, txistulariak gabe arkitzen bai dira, jaialdiak eratzeko.

Eta hontan, ez ote luke gure uduletxeak zerbait gehiago lagundu antolaketa hoietan? Nik neuk baietz uste, eta zuk irakurle?

Azkenez batzordea berritzea erabaki zen, eta baita lehen esan bezela lehendakari berria aukeratzea ere. Jendearren gogoz orain artekoak aurrerantzean jarraituko dute, oraingo behintzat, zuzendaritzan beste indar berri batzuekin batera.

Nik nere aldetik, Joxe, Lete, eta beste batzarkide guztiei, ESKERRIK ONENAK eta... lepoan hartu zazu-tea eta jarrai aurrera.

AZKENIK. Batzar hontan bertan entzun genuen hau ere: oso egokia izango litzakeela gure idazle den Ziriako Andonegiri zerbait laguntza azaltzea. Oso ongi egindako eskaria. Beraz sortu zaio gure Ziriako-ri beste idazle bat ZERUKO ARGIAN. Ez dedilla izan azkena!

ULAZIA

ten, bat edo beste kenduz gero. Ez al da hau negargarria?

Nere asmoa ez da hitz hauekin inori min ematea ez eta gure artean borroka bat sortzea ere; gure hizkuntzaren aldeko kezka bat sorreraztea baizik. Ez nuke nahi hemen irakurtzen dituzten hitz hauek, beste gauza asko bezala, haizeak eramatea. Zerbait pentsatzen hasteko garaia badugula iruditzen zait. Begira dezagun nola gabiltzan eta jokabide batzuk har ditzagun, Zegaman oraindik horrenbeste euskalduntasun badago eta. Has gaitzen denok, gure artean euskeraz hitzeginen. Hori da gure lehenengo lana. Nahikoa genuke bakoitzak geure ahalegintxo egitea. Ez dezala inork esan hil dela Zegama.

SUA

Orain egun gutxi, «sua» dela eta estualdi bat bizitu du Zegamako herriak; izan ere «Papele-
rak» su hartu bai zuten. Herriko askoren ogibidea or dagoela ikusirik, nor gelditu lasai?

Kalte haundirik ez zen izan, sua berehala itzaldu zen eta kea ber-
riz... noiz arte?

Gertaera honen ondoren, fabri-
kako ugazabak oharitxo bat atera zuten, langileen jokabidea eskertuaz eta sari baten promesa eginez. Halaz ere, horrelako sari berezien promesarik baino gehiago eskertuko genuke egitura aldaketan sari funtsezkoagorik.

BEROA

Berogarri edo «kalefazioa» ipini berria da Zegamako eliza nagusia. Benetan txalotzen dugu ekin-tza hori, bainan ez dugu uste «be-
rogarri» klase hori, bakarrik denik Zegamarrok elizan behar du-guna. Berogarri sakonagoaren be-harrik ere bada, bai noski, ala-jaina. Hasiera bat bezala, onar-tzen dugu bainan jarrai dezagun berritze funtsezkoagotan.

ERNE

eibar

EZ DAGO UMEENTZAT ASTEROKO BAT

Azkenengo urteetan euskerazko idazteki bitzasun aundia artu dute, ta nola ez, saltzalleak ere, asko ugaldtu dira.

Aste batzuk dirala, gure etxera eldu zan saltzaille batek, esan zi-dan, etxerik etxe gogor jarduten ibilita gero, ezin izan zuala idazti bat ere saldu.

Kezkatuta utzi ninduan, eta naiz gezurra iruditu, auxe da erantzuna: «EZ DAGO UMEENTZAT IDAZ-TI NAIKOA».

Idazteki badira, bai, merkeak eta politikak, baiña birritan edo iruge-rrenez dituztenerako, buruz ikasita izaten dituzte umeek. Ba dira «Amandriaren Altzoan» (zenbat bider irakurrita) bezela idazteki ipui politzez beterik; azkenengoz Tin-tinen ipuiak itzulita agertu dira Liburutegibatutan, baiña ASTERO-KO BATEN BEARRA DAGO.

Nagusi askok erosten dituzte euskerazko idaztekiak, baiña ez dute irakurtzeko erreztasunik, ta arasan ikutu gabe gelditzen dira. Umetan ez zutelako ikuntza onetan irakur-tzeko ezer euki, gertatzen da au.

Aur geineroi atsegin zaie, erde-rakzo Mortadelo ta Filemon edo Tiövivo edo beste mota ortako ipuiak, merkeak eta oso errezak irakurtzeko; gure leengo PAM-PIM bezelakoak. Aur auek, alako ipuiak euskeraz izan ezker, errestzun aundia artuko lukete, ta gurasoak erositako idaztekiak, nagusitara el-tzean irakurtzeko ez zuten engara-rik izango, onekin batean oitura artuko zuten euskeraz pentsatzeko eta ez zan gertatuko Elgoibarko erri-
tik idazten zuanak ziona; eldu euskeraren gai edo ikastola gai-aren gainean batzar batera eta da-na erderaz itzezin bear.

Deustoko Unibersidadeko Aita Urrutiari egindako galderen artean, auxe zegoan. Zergaitik aaztuzten dute euskaldun askok bere izkun-tza Euskalerritik kanporako errieta-
ra joatean?, ta erantzuna ederki eta garbi eman zuan: Ez dutelako alfabetizatorik ikuntza onetan, ez dakitelako beren ikuntzan idazten eta irakurtzen.

U.N.E.S.C.O.-k dionez, aurrak be-re erriko ikuntzan ikasi bear du-te, urte bi edo iru dituztenean, eta garrantzi aundia du, aurraren ezi-
ketan, erri ikuntzak.

Beste gauza bat ipini bear da garbi berriz; orrela ikasten duten aurrak, ez dute urte bi edo iru galtzen ikastetxean, besteak bezin ongi egiten dituzte lanak. Olan gertau da, Eibarko Ikastolatik ur-
ten degunori.

Zenbat aurrek artuko lukean po-zik ASTEROKO bat gure errian. Zenbat azi ditugun alferrik galtzen, zuaiztak zuzendu naiean!

Gizon euskaldunok, nor izango ote da ugartik leengo lana egingo duana?

S.C.R. ARRATE

Zuzendari berria izendatu da S.C.R. Arraterako: Garate Jauna. Itxaropen osoa degu, aurrekoek bezela, lan asko egingo duala mai-
lla danetan ta nola ez, Euskal Jal eta Euskeraren alde.

Zorionak. Gazteei dear bat: «Zaindu ditza-gun toki auek, gureak ere badira eta».

IRADIER

Iradier taldeko abeslariak abestu dute Laboralean.

Beti bezela, zoragarri!
Kruzeta'tar Odile

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE - TXUKUNKETARAKOAK

URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutizkifiak:

Etxekoa 65 19 60

Landolakoa 65 19 33

URRETXUA

Urrutizkifiak:

Landolakoa 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa'n - Zumaiakarrogi, 7'gn

DEPURACION DE AGUAS S. A.

Ur lanetan eta zereginetan berezia edangarri, lantegiko eta igeritako urak gertutzeko zikindutako urak garbitzeko.

Urrut. 32 37 00 - 31 00 10 - 32 37 01
Gordoniz, 44

BILBAO




Ondarrutik Arrantza eta Arrantzaleak

Txitxarrua ta berdela
Joxe-Mielen batela.
Joxe-Mielen batela
txitxarrua ta berdela.
Abesti errikoia benetan. Antziña
antziñatik erriak ezagutzen dabe-
na. Ezagutu eta gogoz kantatzen
dabena, maai andi betearen ingu-
rnan umoretsu arkituten bada ba-
tez be.

Gogoz kantatzen dau erri orrek
"Txitxarrua ta berdela", baiña,
maai artan, ziur asko, ez da txi-
txarrurik ez berdelik ikusiko. Eta
gure iritzirako, ori dau kakorik
gogorrenetarikoa ainbeste esamesa
emoten datorren Kantauriko txi-
txarru eta berdelak. Erriak ez dau
gura. Arrantzale erriak berak be
—mu!—, egiten deutsa. Zergatik?

Erriak sakonkiro ezagutu eta jan
daian bearrezkoa daben zabalkun-
derik ez dalako egiten.

Erriak ez dau sakonkiro ezagu-
tzen. Erriari ez jako inoiz be era-
kutsi izan arrain orreik dabezan
proteinen barri. Eta erriak merke
eskeintzen yakola ikusirik ez deu-
tsa arrera onik egiten. Merke esan
dogu. Badakigu. Ez dogu esan bai-
ña, merkeago eskeini ezina dogu-
nik. Orrelakorik ez.



Erriak ez dau sakonkiro ezagutzen

ZABALKUNDE BEARRA

Kantauriko arrantzari buruz San-
tanderko urian oraintsu egin ziran
Batzarretan arturiko erabakietarik
bat arrainaren zabalkunde tele-
bista, irriti eta gainerakoetatik
agintariei eskatekoa izan zan.

Ondo baiño be obeto deritzagu
orri. Telebista eta gainerakoetatik
ez da bear ainbat zabalkunde egi-
ten. Eta egin bearra dago. Eraku-
tsi egin bear da arrainak dituen
alderdi onak. Baiña ez gaitzean
besteak egingo dabenera begira ge-
ratu. Geuk izan bear dogu zabal-
kunde txanpaketa orretan arraun-
lari, geure kaiatik asita gainera.

Leen be asiak ziran telebistatik
zabalkunde ori egiten, baiña, ziur
asko ango zuzendariak ez eben
ikusten zabalkunde arek eukan ga-
rratzirik eta, bertan bera, laga edo
orrelatsu gertatu zan. Ez zan ikusi
arrantzaleei laguntza emateaz gai-
nera naziorako aberastasuna zeka-
rrela, kanpoetatik okela gitxiago
ekarri bear izatetik.

Gaur orindino ez da arraiña jan
bear litzakeen neurritz jaten, oke-
lari begira beintzat. Diotenez arrai-
ña, 1961 urtetik 1970 urtera, urte
ori barruan dala, 733.000 tonela-
datik 936.000 tara igo zan. Okela
berrix, 630.000 toneladatik 1.354.000
tara. Ikusten degunez, alderdi biok
ezberditasunez igo ziran.

Esan dogun bezala, bearrezkoa
dogu ba zabalkunde ori egitea;
baiña, esan dogun legez, baita,
genk geure aldetik al doguna egi-
tea laga barik be. Eta zoritzarrez,
lagatzerik ez daukagu, ez deutsa-
gu ekin oraindinoik eta.

ZER EGIN DAITEKE?

Txitxarru, berdel eta gainerako
arrainengatik, inoiz be, bota oi do-

ATXUKALE

BLAS DE LEZO

ETXE ONTAN DAUZKAZU SAGARRO, ARDO GAIN-GAINEKOAK
ETA EBARI GUZTIEGATIK

Blas de Lezo Kalea, 6
Urrutizkifia: 41 29 06

BONOSTIA

JOSTUNDEGIA

MODISTEGIA

UGARTE

Urbieta, 66

BONOSTIA

MUEBLES
URRETAVIZCAYA
1920'an sortutako etxea
ERREDIZAK - EDERGALLUAK
EGIN - GALAK eta AURRE - KONTUAK
POSTAS, 46 GAZTEZ (Vitoria)

Ez Merkenak


Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

Gipuzkoar lantegi txiki eta aundigoaren oiñarri sendoa



Lantegietarako diru laguntza

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL etxeak,
industria egoera gogoan arturik LANTEGIAREN
ALDE PRESTAMENAK eratua ditu lantegi txiki
eta aundiagoek eskura dezaten.
Lantegi barruan makinaria aldatu bear duzula,
lantegia eraberritu edo aunditu nai duzula eta
kezkatu bazaude, zure lasaipiderako LANTE-

GIAREN ALDE PRESTAMENA antolatua dugula
jakin ezazu.
Zatuz eta inbentario zuzentzeko bear duzun
argitasun eta laguntzarik gure artean aurkituko
duzu. LANTEGIAREN ALDE eratu dugun diru
babes eta laguntzaren ondorenak ikusiko
dituzu.

CAJA DE AHORROS PROVINCIAL
DE GUIPUZCOA



ELIZAREN BERRI ELIZA SALBAZIO BIDE - I

HEGO AMERIKETAKO ELIZAK

Georges Casalis artzain protestantea joan-etorri bat egina da oraindik orain Hego Ameriketa barna. Hango Elizetan ikusi duenaren berri eman die kazetalariei. Txosten hori jaso ahal izan dut "Témoignage Chrétien" astekarian. Lauurpena aldatuko dut hona.

Erasanik handiena, dudarik gabe, hango jendearen mixeria garraztarena izan du aipatu Casalis artzaiak. Mixeria hori ez da momentoko ezbehar baten ondorena, lurraide horiek, espainolen eskutan erori zirenetik, jasaten ari diren Europako eta Ipar Ameriketako erresumen zapalkuntzaren ondorena baizik. Cuban, aldiz, ez dirudi mixeriarik badenik; ageri dena, berdintsu banaturiko pobretasuna da.

Chile eta Peru, oraingoen aurreko errejimeneke utziriko mixeria gainditu nahiez dabilta: mixeria kulturala eta materiala. Horrek berezko duen zailtasuna gutxi bait litzan, lehengo errejimeneke zapaltzaileek oztupoak jartzen jarraitzen dute.

Esan beharrik ez da, Hego Ameriketako liberalismo politikoa atzera geratu dela; ikusten dena, zera da: alde batetik estatu totalitariora, bestetik mugimendu iraultzaileak. Eta, horrelakoetan ohi bezala, zapaltzaileek "terrorismoa" josten dute, bidetzat tortura eta polizia indarkeria hartuaz.

Horrelako giroan, gauza normala da, Elizak ere zatiturik agertzea: giza maila arteko borroka kristau elkarrean ageri da. Esaterako: halako apaizgaia bere gotzaiak ez du apaiztu nahi, polizia torturatua izan delako; beste bati, bere gotzaiak, giza maila etsaieko bezala hartzen ote duen galdegiten dio; beste, Sinodoak, politikaz muturreko samar ageri diren kristau-artzain nahiz laikoak baztertu egiten ditu...

Asko eta asko, zaharregandik harturiko egiturak hankaz gora doazelako, larritasun bizian bizi da. Beste asko uste honetara heldu da: eklesiologia "konfliktual" delakoa onartu beharrezkoa dela, hots, kristau elkarrean baitan klase-istiluak gauza errealtzat eman behar direla. Baina, etenak ere sortzen ari direla eta ekumeniko talde berriak jaiotzen ari direla, agerian dago.



Bertako egoera larriari erantzun lizaiokeen teologia...

Esan behar da, eliz-hierarkia agintarien besotik doala ere; gotzai libreak oso gutxi dira, kontatzen direnak. Eta Europako eliz-gizon handien bat, presondegiak preso politikoz beterik dauden bitartean, gobernu torturatzaileek ohore handienaz hartua delarik, bertako hierarkia "zuhurra" bere lehengo jarriaren sendotutik gertatzen da. Uruguay, Argentina, Colombia eta Mexikon, esate batetarako, eliz hierarkia militarrekin goxo goxo dabil.

Halatan, ez da harrizkoa, hierarkiaren eta oinarriaren artean tartea handia sortuz joatea. Mixeriari kontra ekitea, politika aldetik ezetik, eliz-hierarkiaren aldetik ere, arriskugarri gertatzen da.

Bestalde, Hego Ameriketako gaur egun, beste inon ez bezalako teologia mugimendu bizi ari da egosten: "askapen teologia". Ezaugarri hauek dituelarik:

- Europako eta Ipar Ameriketako Elizak ezartzen dieten kulturazko eta egiturazko kolonizazioaren askapena;
- Bertan mamituriko teologia izan nahi du: bertako egoera larriari erantzun lizaiokeena;
- Gorputzaren eta izpirituaren artean, gizadiaren historiaren eta eskatologiazko Ebanjelioaren artean, giza eskubideen eta justifikazioaren artean, sozio-ekonomiazko egintzaren eta salbamenduaren artean lokera bat ezartzen duena.

AMUNSA

FAGOR

edaria
epela dagola?
FAGOR'ek
oztuko
du bereala

CAJA LABORAL POPULAR

(LANKIDEEN AUZO-AURREZKI ONTZIA)

— DIRU - PRESTAKETA ELKARTEA —

Aurrezki kutxa onen laguntzak: — gizarte-saillean
— diruketa-saillean
— lantegi-zuzendaritza saillean

ZUK AURRERATUTAKO DIRUAREN BIDEZ, LANGILLE ASKORI, BERE LAN-SARI
PREMITIK IRTETZEKO BIDEA SORTUKO DIEGU

Laguntza ezin obeak, etekin eta irabazirik aundienak eta illeroko sari ederrak eskeintzen ditugu

Gure landolak erri auetan idikiak dauzkagu:

Mondragoi
Aretxabaleta
Elorrio
Barakaldo
Ondarroa
Andoain
Plazentzi -Soraluze-
Onati
Ormaiztegi
Beasain
Gernika

Zumarraga
Elgoibar
Markina
Bergara
Altsasua
Eibar
Tolosa
Pasai San Pedro
Erreñeri
Billabona
Gasteiz

Bilbo
Legazpia
Irun
Durango
Amorebieta
Azpeitia
Ernani
Zarautz
Sestao
Ordizia
Antiguo -Donostia-
Azkoitia

Ermua
Eskoriaza
Izarra
Ondarrabia
Galtzaraborda
Lekeitio
Llodio
Recaldeberri
Agurain
San Andres
Azkoitia

Munguia
Yurre
Bermeo
Lasarte
Enenderian
Santurce
Zumaya
Donostia
Iruña
Deba
Anzuola

Eliza salbazio bide dela esaterakoan aurren-aurrenik ulertzen dena zera da: Elizak kanpo beste salbazio biderik ez dagoela: «Extra Ecclesiam nulla salus». Esaera hau, nahiz teologian oso problematikoa izan, monopolio baten antzera ulertu izan du Elizak berak. Elizak dauka, Jainkoagandik Jesukristoren bitartez hartua, salbazioaren monopolioa. Salbatua izan dadin nahi duenak, salbazioa lortu nahi duenak, Elizara jo behar du, Elizakide bihurtu eta Elizaren barruan iraun behar du. Nahiz esaera honek, esan bezala, teoriarik problema asko izan berekin, praktikan oso erabilia izan da eta gizarte-politikazko indar handiko faktorea izan da; Elizari bere gizarte eta politika mailako asmo eta nahiak bete ahal izateko zerbitzu haundikoa izan zaio.

Halaz ere Eliza salbazio bide dela egia da. Nola ulertu behar da, ordea, esaera hau? Nolatan da Eliza salbazio bide, edo eta hala bada, zer ondoren ditu honek Eliza ulertzerakoan?

Aurreko lanetan aipatu da jadanik Jesusek ez zuela Elizarik sortu, Jainkoaren erreinua predikatu baizik. Ezaguna da esaera hau ere: «Jesusek Jainkoaren erreinua predikatu zuen, eta honen ordez Eliza etorri zitzaigun» (Loisy). Eliza beraz, kondairan bizi izan zen Jesusek, eta kondairaren amaieran eraikiko den Jainkoaren erreinuaren arteko zubia da. Jainkoaren erreinua, ez zen, Jesusek espero zuen bezala, berehala etorri. Jesusek zekarkien gizonentzat salbazioa. Hau ez zen bere osotasunean berehala egikaritu, garaian amaierako gelditu zen. Jesusek lagunek, ordea, konbenzimendu sendoa zuten azken salbazio hori Jesusek ekintza zeja. Horregatik Jesus dela salbazioa esan daiteke, eta berdin Jainkoaren erreinua. Baina Elizaz ezin esan daiteke hori: Eliza ez da salbazioa, salbazio bide baizik. Elizaren helburua ez da Eliza bera, Jainkoaren erreinua baizik. Eliza ez da betirako, Jainkoaren erreinua datorkeneraino baizik. Eliza ez da salbazioaren jabe —Aita Saindua ere ez, beraz, hierarkia ere ez, apaizak ere ez— salbazioaren zerbitzari baizik. Bitartekotza bat da, bide bat. Baina hori ondo ulertu behar da. Puntu batzuk aipa ditzagun.

1.—Bitartekotzaren edo ordekatzaren ideia ondo ezaguna da israeldarren artean. Israeldarrek, herri bezala, ordeko egiteko betetzen zuten, Jainkoaren herri aukeratu zirenez. Herri barruan ere, herri osoak Jainkoaren deia zintzo jarraitzen ez zion neurrian, gizon eta talde aukeratu batzuek ordekatza egiteko betetzen zuten herri guztiaren onerako. Jesus gurutzatzeo erabakia hartzerakoan hala dio apaiz nagusiak: komeni da bat guztien ordez hiltzea.

2.—Jainkoaren herriak, eta herri horren barruan gizon eta talde batzuek betetzen duten bitartekotza Jesusengan burutzen da. Jesus da Jainkoa Aitak jarritako eta onartutako ordeko bakarra, bitarteko bakarra. Garbi auzaltzen da hori Hebertarrei egindako eskutitzean. Epistola honen gaia Jesus apaiza da. Jesusi buruz, bera dela apaiz bakarra esaten da epistola hortan, hau da, Jainkoaren eta gizonaren arteko ordekatza, bitarteko bakar eta jatorra. Jesus da Salbazio bide bakarra. Haren ondoren beste salbazio biderik ez dago. Salbazio bide guztiak Kristogan dute beren burutzea, Kristok agortzen ditu salbazio bide guztiak.

3.—Horregatik, eta printzipioz, Jesusengan eta bere bitartez gara salbatuak eta ez beste inorengan, ez beste inoren bitartez. Jesusek bere eginkizuna burutu zuen, gu gizonok salbatu gintuen, baina sinismenean eta itxaropenean. Hau da: Jesus Jainkoaren erreinua predikatzera eta eraikitza etorri zen (gizonak salbatzera); baina Jainkoaren erreinua itxaropen gelditu zen. Horregatik Jesusek printzipioz lortu zuen salbazioak eramaile bat behar du salbazio hori (Jainkoaren erreinua) egikaritzeko den bitartean.

4.—Eramaille hori ez da salbazioaren jabe, eramaile baizik. Eramaille honi deitzen diogu Eliza. Eliza ez da zerbait itxia. Eliza (salbazioaren eramaile beraz), Jesusen salbazioaren partekide den guztia bilakatzen da. Jesusen salbazioaren eramaile beraz, Eliza elkarte da, ez Eliza hierarkia. Jesusen salbazioaren partekide berriz, era askotara bilaka daiteke: lehenik eta batez ere Jesusen sinismenean kide bilakaturik, baina baita ere, jakinaren gainean edo jakiteke, bizitzan haren etsenpluari jarraiturik.

5.—Horrela ulertutako Eliza da salbazio bide. Eta salbazio bide da ez salbazioaren jabe den neurrian, Jesusen salbazioaren eramaile eta Jainkoaren erreinuaren zerbitzari den neurrian baizik. Hau da: Eliza sakramentu (lehen sakramentu) bezala da salbazio bide. Baina hontaz urrangoan gehiago.

JOSEBA ARREGI

zuretzat etxea
ZARAUTZEN

sarrera
50.000 pezetan

ordainketarako
erreztasun osoz

- San Pelayo auzoan
- 560.000 pezetan etxe-bizitza
- Erabat bukatuak ditugu

Bear duzun informazio edo argitasuna:

- Asteartean, arratsaldeko 4-6,30 an
- Ostegun goizean 10-13 an
- Eta Donostiako ofizinetan edozein momentutan



CSG CONSTRUCTORA SOCIAL GUIPUZCOANA
AUZO-EGINTZA
Prim Kalean, 14-2 garrenean
Urrutizkifia 426906-429942
DONOSTIA

Publicidad Autorizada n.º 75

KONTU ZAHARRAK SALATZEN

Bizkaiak, euskaraz argitaratzen den aldizkari batean, 248 zenbakian hain zuzen, nik orain dela hiru hilabete "Euskal Primitibismoaren hildotik" egindako artikuloiari "kritika" izan nahi duen edo horrelakoren antzeko bat da agertu.

Artikulu hortan nere artikularen zati batzuk agertzen eta "kritikatzen" dira, nere artikulu eta planteamendua "kritikatu" nahiez.

Poztu egin nau, bai poztu, autore honen artikulak. Zeren beti, artikulu bat eta hortan planteamentu bat egiten denean, artikulu horrek "kontrapuntu" bat behar baitu bere benetako mamia garbiago ikus dadin. Konkretatu behar da, jendeak jakin dezan artikulu hori ez dela kasualitatez egina edo ta berokeriaz taxutua.

Nik artikulu harrekin esan nahi nuena zera zen: euskaldunok, askotan, geure errealitatea baztertzeko ohitura izugarri handi bat dugula eta egoera horren baldintzak kontuan hartu gabe abiatzen garela gure arazoak konpontzeri. Hori dela ta, hots, gure primitibismo politikoaz baliatuz joera berri bat sortu dela ikastolaren aurka. Bigarren eta hirugarren malako eztabaidak sortu, bitartean, gure benetako arazoei, Euskal-Herriko egoera bereziaren ondorio diren arazoei, erantzunik ez dizaelegun eman.

Eta hona hemen, artikulu bat etorri nik esandakoa frogatzera... Baina, artikulu hau luza ez dadin lot naxion "kritika adierazgarri" honi.

Neri zuzenduak dijoazen parrafoetan hala dio:

"Edo ta ZERUKO ARGIA 560 zenbakian, zera irakurtzen dut: ...Azkenik, pedagogia "askatua" eta horrelako ez dakit zer-keria gure egoeran erabiltzea, demagogia huts-hutsa da eta hori badakigu "zer" den... Nik uste dut horrelako astakeria batek komentario luze ez duela merezi. Euskaldunak izan ala ez izan, that is the question!

Problema nagusia horretan datzala uste duena, eta beste guztia "zer-keria" eta demagogia dela esaten duena, gure egoeran pedagogia askaitzaileaz eta pedagogia zapaltzaileaz hitz egitea demagogia dela esaten duena metafisikaren bat defendatzen ari da.

Edo eta zenbaki berean zera irakurtzen dut: ...Zeren euskaldun batentzat garbi eta klaro egon behar duena zera da: ikastolak NAHI ditugula. Hau da inportanteena... Eta nik uste dut ezetz. Nik uste dut, dogma batetik abiatzea dela hori. Ikastola idealizatu egin da. Ikastola, berez, da ona, itxura denez. Eta orduan, ikastola NAHI izan behar du euskaldun zintzoak. Eta NAHI izate hori maiuskulaz idazten du autoreak. NAHI maiuskulaz idatzi duenarentzat, ikastola ere maiuskula da, absolutua.

Baina nik uste dut ez dagoela berezko ikastolarik edo eta ikastolak ez duela berezko ondasunik. Nik ezagutzen ditudan ikastolak, konkretuak dira denak, berezko ondasunik gabeak denak. Batzuk hobeak, beste batzuk okerragoak.

Batzuk demokratagoak, beste batzuk faszistagoak. Batzuk euskaldunagoak, beste batzuk erdaldunagoak. Beraz, ikastola batzuk nahi ditut eta beste batzuk ez. Ikastola guztiak eta nahi izate guztiak erlatiboak dira. Ez dut berezko ikastolarik onartzen, berezko Euskal-Herriko onartzen ez dudana bezala. Bai ikastola eta bai Euskal-Herria, geuk egiten ditugun bezalakoak dira".

Oneraino autoreak dioena.

Besterik ezer baino lehen zera esan nahi nuke: nere artikuluan, ikastola konkretuak dituen problema konkretu eta inportanteenak tratatzen nituen, oraingoz, funtsezkeanak ez direnak baztertzuz, beraz, nere artikuluan absolutuak eta metafisika ikusten dituenak gauditu ezin dituen konplejo batzuen eragina edo eta bere borondate txarra besterik ez digu frogatzen. Kasu honetan, nere ustez, biak.

Lehenbiziko arrazoi horri psikoanalistek "proyección" deitzen diote eta nahiko garbi dago horrekin esan nahi dudana. Zeren, absolutu eta metafisika dagoela... bai jauna eta asko gainera, baina zure buruan.

Baten batek atake "personal" bat dela esango dit, halabainan, hau bezalako eremploak milaka ikusten ditugu euskal baratzetan eta badela garaia uste dut halako pitokeriak salatzeke. Ez salatzea eta are gehiago halako gauzak kontuan hartzea denbora galteza besterik ez da. Hona hemen berriz gure "primitibismo politikoaren" eremplu nabarmen bat. Ea jarren garen, jadanik, behin betirako serio.

Bigarrenik, borondate txarra aipatzen genuen, borondate txarra... edo gero ikusiko dugunez, ezin bezain ongi taxutua dagoen joera politiko bat.

Nik artikulu hortan zera esaten nuen "ikastolek, mundu honetan gauza guztiak bezala, alde on eta txarrak dituzte (eta gure egoeran gaudelarik ez zitekean bestela izan). Baina gureak dira eta gainera onak txarragoak baino gehiago dituztela, inork

ezingo du ukatu (euskalduna baldin bada, behintzat)".

Horregatik nahi ditugu ikastolak. Eta hortarako, alegia, euskal xistima pedagogikoari irtenbide bat eman nahi diogulako, xistima horren oinarria sendotuz joan behar dugu. Alegia, lehen genionez, benetako arazoei, Euskal Herriko egoera konkretuaren ondorio diren arazoei erantzun bat eman behar zaie. Eta, oraingoz, oinarriko ez diren arazo eta eztabaidak salatu eta utopia batzertu behar ditugu.

Irakurle azkarrak egoera konkretuari buruz ari naizela aisa ikusten du. Ikastolak dituen problema konkretuari buruz, alegia.

Halabainan, gure "kritikoak" ez "Astakeria" bat iruditzen zaio utopia batzertzea eta egiazki aztertea. Are gehiago "metafisikaren bat defendatzen" ari omen naiz...

Aitzitik, "ikastola desidealizatu" behar dela esaten duenean, "ikastola konkretuari" buruz mintzatzean ez ditu aipatu ere egiten ikastolak dituen problema konkretuak, ikastolaren egoera larri honen arazoi benetakoak, nahi ta nahiezko arazo konkretuak.

Okerrago, utopietan sartzen da, momentu honetan ikastola normal batentzako bere egoera larria ikusirik "amets hutsa" direnetan.

Alegia, hain "materialista" agertzen den autoreak, neri "kritika" egiterakoan, nere planteamentu "metafisikoa" salatzerakoan ez du gure errealitatea hardatztat hartzen... "Ahhaztu" egin omen zaio. Hobeiki esateko baztertu, ukatu egiten du.

Zu bai zaudela metafisikan eta badakigu ze metafisikatan gainera!

Baina ez pentsa, autore honen planteamentu eta "ahantze" hori kasualitatezkoak direnik. Bai zera.

Ezin garbiago ematen digu bere "ahantze" horren arazoi eta funtsa.

Arrazoi hau da: gure autoreak dionez "ikastola latzuk hobeak dira, beste batzuk okerragoak. Batzuk demokratagoak, beste batzuk faszistagoak", ikastetxe erdaldunak bezala, alegia. Autoreak esaten duenez "ikastolek ez baitute berezko ondasunik" hots (eta hau derrigorrezkoa da zuk esandakoakin) ikastetxe erdaldunek Euskal-Herri eta euskararentzako, berez kaltegarri eta txarrak ez diran bezala. Alegia, euskara irakatsi eta haur euskaldunak giro euskaldun batean hezi, berez, positiboa ez den bezala. Euskara baztertu eta zokoratu, berez, txarra ez den bezala.

Hau dena kontuan harturik ikastolak eta, beraz, ikastetxe erdaldunak "gauza erlatiboak" baldin bada (espero baitut ikastolak "erlatiboak" baldin bada ikastetxe erdaldunak ere "erlatiboak" izango direla), biak funtsean berdinak dira Euskal-Herriarentzako.

Berdinak direnez, momentu batean berdin-berdin eraman ditzakegu haurrak ikastetxe erdaldun ala euskaldun (ikastola) batera, ezertan bereizten ez baitira.

Honez gero, seguru nago, euskal irakurleak nahiko garbi ikusiko duela gure autoreari Euskal-Herria, euskara, eta euskal den guztia bost axola zaiola.

Nahiko garbi dago, beraz, lehenengoko "ahantze" horren arazoi. Ez zen, ez, kasualitatezkoa, alajaina!

Bainan lasai irakurle, zuk eta biok aisa ikusten dugun ondorio hau, autoreak ezin garbiago esaten eta baieztatzen digula, bai horixe. Gure autoreak ez dabilen gezurretan, alde horretatik gorapamenak besterik ez ditu merezi. (Batzuek bere eritzi eta egia bota dezaketela, eta beste batzuek, ordea, ez, kontuan harturik, jakina).

Zeren eta hemen datza kakoa, gure gaurko egoeran, Euskal Herriko egoera konkretu honetan, euskaldun izan ala ez izan, arazo nagusia dela esaten duena "metafisikaren bat defendatzen ari omen da" baitio gure autoreak.

Hauze hain entzun beharra... Nere eskerrik beroenak ematen dizkizut, zure aitorten klaro eta leial horregatik. Bazen garaia! Susmoa, egia esateko bagenuen, baina, orain, ez dugu dudarik.

Zuk esaten duzun bezala, Euskal-Herria, euskara, ikastola, "dogma batetik abiatzea" baldin bada, kritikatu beharra dago, zeren zuk esaten duzenez zure "kritika"ren beste parte batean "beti esaten eta inoliz pentsatzen ez diren esaldiak onartzea, jarrera irrazionala da; eta irrazionalismoa faszismoaren oinarrian dago" (Nahiko garbi dago, beraz, zertara iritxi zaren).

Bainan, euskaldunok, TONTOTZAT hartu ahal gaituz ala? Ala adarra jotzen ari zara? Eta zer uste duzu, zure planteamentua desgaiten hasiko naizela?

Ez gizona! Gure kondaira aztertu besterik ez duzu, gure NAHI izate hori oso finkatuta dugula eta



askotan, gaur bezala, frogatu eta defendatu behar izan dugula ikusteko. Nola sortu da, bada, gerra ondoren ikastola? Hori ez ahal da gure NAHI izate horren frogantzarik onena?

Ez jauna, ez, ez gaude prest NAHI izate horren arazoiak zalantzan jartzeko. Nahiko garbi ikusten ditugu. Eta nahiko denbora galdu dugu.

Bainan bada zurekin ez hitzegiteko beste arazoi bat ere. Zurekin hitzegiteak sentidurik ere ez duela. Zuk gure egoera, ikusi dugunez, normalizat ikusten duzulako, benetako egoera izkutatzuz eta, beraz, baldintza objektiboaz baliatzen zarela ikastolaren aurka joateko.

Nik dakidanez, behintzat, klaseen arteko harremana, borroka bat da. Sekulan ez elkar-hizketa. Zurekin ikastolari buruz hitzegitea gure errealitateari uko egitea da.

Orain arte esandakoakin Joseba Arregi konformegongo dela espero dut.

Hona hemen zergatik nere artikulua ez zen kasualitatez egina edo ta berokeriaz taxutua.

Aldizkari horrek, bere "aniztasunari" atxikiz, beste fabore bat egin dio gure Herriari.

AURTIZ